



## VIZCAYTIK BIZKAIRA

**Resurreccion M. Azkue**

Iturria: *Vizaytik Bizkaira*, R.M. Azkue. Astuitar J.-n moldagintan, 1895.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AzkueRBizkaira.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **VIZCAYTIK BIZKAIRA**

R. M. AZKUETAR ABADIAK  
BEREN AITA ZANAN GOMUTAGARRITZAT  
IRU ATALETAN  
EGINIKO  
EREZI - IRAUTSIJA

BILBON  
1895 GARREN URTIAN  
Astuitar J.-n moldagintzan

Jaubeduna da



## Zer edo zertxu

Irakurlia: eztakit nor axan, ona aixana bai. Gaiztua edo dongia danak, Euskalerra eder onetan jaijua ixanarren, euskerazko asmorik eztua ez ikusi ez entzun nai ixaten. Ona ixanez ganera ikusgura ta jakin-guraxua aixana jakiteko be eztot nik iñon esanik biar.

*Vizcaytik Bizkaira* zer dan, ixen onek beronek dau agiri. Ixenak erazkua ixateko egokijak ixan biar dau. Ixen esan-gurako ori nire lan kaskartxu oni dagokijon ala ez, euk atzenian igarriko dok. Orretarako irakurri eixak astiro agerraldirik agerraldi ta atalik atal liburutxu onen orriajak; eta gero *Vizcayzori* txarreko onetan ondo ta eziñ obeto gagozala uste badok, ezai, gibel-andi ori, *Bizkaira* elduteko gogotan bixi.

Anton da lagunak ezaututen asi-orduko zerbait geijago be jakin nai ixango dok, batez bere onen aurreko orrija irakurritu badaukak.

Zer dogu erezi-irautsija? Zer estalkija? Zer atala? Agerraldija zer? Zer iñoix entzun bako beste berba orrek?

Ona liburutxu onetan argitaratuko dirian berba barriajak:

*Abizen*, apellido

*Agerraldi*, escena

*Agerle*, actor

*Agirijan*, en escena

*Asterkari*, director

*Atal*, acto

*Batzoki*, sociedad

*Zenbaki*, numero

*Erabagille*, Juez

*Erakusle*, personaje (de Teatro)

*Erezkai*, letra (para música)

*Erezi-irautsi*, zarzuela

*Estalki*, telón

*Irastle*, escritor

*Iratsi*, escribir

*Txiñel*, alguacil

Egija esateko gaur edozeiñ *sakristaukumek* arpegi artzen dauskue geure *k* ta *g* ta *tx* ta *j* diriala ta eztiriala. Eta ixan leike onetariko sasi-jakintun bat edo batek berba orrek irakurritakuan, piper miñ miña janezkero-

ko arpegi tximurraz, zerbait esan gura ixatia. Orretarikotxuen esamesak piperren bezte gili gili ta inka eztabe egiten.

*Agerraldi*, *agerle*, *agirijan*, *atal*, *erabagille*, *erakusle* ta *estalki* berba egokijak diriana, nok eztaki? Erderakada-zaliak be bai ausa. Onek baixen ezaun-errazak eztira *erezi-irautsi* ta *erezkai*. Lenengua astertuezkero, beste arazo barik bigarrena agertuko da.

Erdaldunak onako zera *zarzuela* esaten dautse; ta euretariko batek diñuanetz, zarzuela eritxon Errege-tokijan agertu zalako ezarri eutsen ixen au.

Erdaldunen antzera nire seiñtxu au ixendu nai ixanezkero, *Iturribide* edo onetarikoxe berba lekuki bat ezarri biar ixango neutsan.

Ona zegaitik.

Bilboko Iturribide-kalian, *Nekazalien Batzokija* deritxon Etxe on mesedetsu baten jaijo zan ene ezgauzatxu au.

Motsaillak (ijituak, ikitanuak (?)) dira euren semealabai ixentzat eziaenak ezarten dautsezanak.

Berba luzetxua da *erezi-irautsija*: badakust. Etxat baiña laburragorik otu, ta berba labur bidebagekua baiño bidezko luzia obia dalako autu dot ixen ori.

Onetariko ixen bikoitz asko daukaz gure euskera eder maitagarriajak: jan-edana, juan-etorrija, artu-emona, saldu-erosija, sartu-urtena, sartu-ataria, itsi-edegija ta beste amaika.

Bazkaritan nai aparitan nai gosaritan nai beste edozeiñ matordutan jan da edan egiñ oi dalako, onako ekitaldijak edo jardunak *jan-edana* ixan daroie euron ixena. Ibiltaldijetan juan da etorri eginezkero, ibiltaldi onen ixena *juan-etorrija* ixan doia. Lagunen batzuk adiskide-usaiñian beiñ artu ta beiñ emoten iardu ezketiño, alkartasun orrek *artu-emona* ixentzat eukiten dabe. *Saldu-erosija* dan ixena baserritar erdi-kaletartuen tratuak.

Maijan jan da edan egiten da, bidietan juan da etorri, adiskide-artian artu ta emon, saltokijetan saldu ta erosi, biltokijetan barriz erezi edo kantau ta irautsi edo berba egiñ. Eta maijetako jan-edana ta bidietako juan-etorrija ta adiskidien artu-emona ta edozeiñ saltokitako saldu-erosija belarritatuta daukazan euskaldunek, ezta arpegija iguiñez tximurru biar erezi-irautsija entzueran.

Lastertxu, irakurle eruankor orrek, ikusiko dozak Anton da Txomiñ da Vives da Alkatia ta Txanterra ta lagunak batian erezten da bestian irautsen.

Erezi ta kantau bat dira? Erezi ta kantau bat dira. Irautsi ta berba egin bere bai? Baita onek bere.



Lelon illeta entzutetsua Simancasko autsetatik argitaratu ebanak, berba adierazogarri onek ipiñi eutsazan aurretik:

*Canto poético bascongado y de tiempo inmemorial*

### ERECIA

«Esta voz *Erecia* se usaba en tiempos antiguos para significar un canto histórico; al presente no se usa ni entiende» (Ladislao de Velasco, *Los Eúskaros*, página 415).

Erezi ta kantau bat diriana jakiteko ezta geijago biar. Bat diriana txar-to diñot: *erezi* Antonen errikua da, *kantau* Vivesenekua.

*Irautsi* gitxi edo asko edonun entzuten da gaur be: *diraustsat*, *dirausta*, *diraustsagu*, *diraustsazu*, *diraustsak*, *diraustsan*, *diraustsazue*, *dirauste*, *diraustak*, *diraustan*, *diraust*, *diraustazu*, *dirauste*.. ta euron antzeko beste esakera asko irautsijak baiño eztira.

Irakurlia: agur, da irugarren atalian Muitiz zaarrak esango daben antzera, erezi-irautsi au

Eure osasunerako ta euskaldunen onerako ixan beite  
Bilbon, 1895 garren urtian

## AGERLIAK ETA LAGUNTZAILLIAK

Anton — Pertira

Muitiz zaarra (Antonon Aita) — Garate

Txomiñ (Antonon semia) — Salcedo

Teles (Txomiñen laguna) — Arriaga (E.)

Sr. Beato (Sr. Borregon kontularija) — Ortuzar

Don Jose Vives y Almendralejo (maixua) — Cortes

Alkatia edo erri-Burua (Arratiarra) — Maruri (M.)

Txanterrika (Ditutaugaija) — Maruri (T.)

Manu (Kiputz bat) — Urquijo

Txiñela edo erri-zaiña — Basozabal

Durangarra — Arteta

Erropail (Durangarran semia) — Iturriotz

*Guardia sibill* bi — Basozabal da Aberasturi (M.)

Erabagillia edo *Jueza*: Anbrus — Eguia

Ardauduna — Ortiz

Eskolako mutiltxu bat — Aberasturi (R.)

Irauslien lenengo laguntzaillia — Arriaga (J.)

Euron bigarren laguntzaillia — Iturri

Erezlien asterkarija — Valle

Euron laguntzailliak:

1. *Violindunak*: Alana (L.), Echébarri, Lezama Leguizamon da Alaña (C.)

2. *Violindunak*: Arana, Marco, Garay ta Pelaez.

*Violaduna*: Gortazar.

*Violoncellodunak*: Viar da Zuaznabar.

*Violonduna*: Ortega.

*Pianoduna*: Arisqueta.



## LENENGO ATALA

### BILBOKO ARDAUTEGI BATEN

*Agura bat Bizkaiko baseritarren jantzijaz kapela biribill  
berantz begrakua buruan, makillia esku baten, da bestian lurrez-  
ko pipia daukazala.*

### I. AGERRALDIJA

#### MUITIZ ZAARRA; GEROTXUAGO TXOMIÑ DA ANTON

**MUITIZ:** *(Barruko atera begira).* Tira Txomiñ.

*(Illenti isioriko bat eskuan daukala sartu bei Txomiñ, da Muitiz  
beraz pipiari su emoten dagnartian agertu bei Anton).*

**ANTON:** Eztakit ezeren barririk, Kosepantoniñ esakeriaz esan daidan.  
Uste oso osuan etorri gara, Aita; baiña, Hjuuum!! Eztot nik neuk  
an bertan aaa usaiñ onik artu.

**MUITIZ:** Gero ta gero be eruan biar ete dauskue ba! Ai neure Txomiñtxu  
laztana!

**ANTON:** Txakurra ixan banintz be... Modu onian berba egin dautset ba  
nik ba. Goixeko zazpi ta erdi erdijetan ots egin dot *Diputau* orren  
etxian. Neskatilla gazte euskaldun batek atia zabaldu daust.  
Euskalduna naixana, berbetan asi-orduko igarri ei dau: nik ezta-  
kit nun; da arako zetara noian esan dautsadanian, purrustadaka,  
ta algaraka abija da. *(Txomiñ bejua).*

**MUITIZ:** Neska gangarreil bat ixan ixango da ori.

**ANTON:** Neuk be orixe uste ixan dot, baiña ez. Goixegi ixan dalako barre  
egiñ dabela esan daust; eta beste ordu bi igarota be eztala Don  
Kulian edo Borrego edo ori ikusteko moduan egongo. Zetarako  
da ezetz ezatia? Ondo artu nau Diputauaneko otseiñ orrek,  
ondo, biar danez. Eleuke euskaldunak ixan biar!!

**MUITIZ:** Da zer gejjago?

**ANTON:** Itxaron egin biar ixan dot. Beste ordu bitan zer egiteko?

**MUITIZ:** Da?

**ANTON:** Noian or ziar nora edo nora (esan dot neure artian), beiñ Bilbora  
etorriezkeru ikusi daigun zer edo zer.

**MUITIZ:** Da?

**ANTON:** Da da, beti da? Atzera ta aurrera, ibilli ta ibilli, begiratu ona ta  
begiratu orra, ikusi au ta ikusi ori: onelantse igaro jat ija goix-  
erdija. Da, alegija! Ikusi barik gelditu enaixanian!

*(Oraiñ jagi bei Anion da oratu beijo esku hijakaz garri edo gerri-  
jari).*

Begiratu, Aita, nire garri oni.

**MUITIZ:** Da zer? *(Urten bei oraiñ Txomiñek).*

**ANTON:** Onen lodijerako ankaak euki dabez guzurrik esan barik nik iku-  
siriko zaldi batzuk. *(Jezarri beite oraiñ).* Eurak ikustiarren baiño  
ixan ezik be pozik etorri leike Bilbora.

**MUITIZ:** Itxi eixak, Anton, barri orrek etxe-aldera goizaneko Txomiñen  
ganian, neure Txomiñ ederran arazuagaitik zer esan dausk  
Diputauak?

**ANTON:** Esango dogu ori be. Alako zaldirik! Eneban siñztuko iñok esan  
baleust; ezta... Pla pla pla ibiltan ixan dira *(au esaeran besoketan geldi  
geldi iardu bei Antonek zaldi lodi-erara).* Bauke arek iñdarra baiño  
eztana. Pla pla pla *(emen be bardiñ):* onetaraxe, Aita. Burdijak be  
gero euren ezterijakuak edo gaiñakuak dandarrez eruaten dabez:  
gela au baiño andijaguak ete dirian nago. Zemat zorrokada gari  
uste dozu, Aita, sartu leikezala burditzar aretan?

**MUITIZ:** Beti Aita ta beti barriketia? Anton oooo.

**ANTON:** Txomiñen gora-bera onek ondo urtengo baleuskit, alakoxe zaldi  
mamiñtsu andi eder bat erosiko neuke.

**MUITIZ:** Ene San Antonio ta mutilla! Galduek gara, guriak egiñ dau,  
Anton. Ardantegiren baten sartu aix i, ikusgura barritsu ori.  
Alperrik ixango dok ukatutia: jota ago i, jota. Erija-egunetako  
*katua* daukak ik, zirimara buru-ariñ orrek.

**ANTON:** Orrenbezte bezte... be ez, baiña...

**MUITIZ:** Alper dala ukatutia.

**ANTON:** Ona ba: ibilli ta ibilli azpeltu naixanian da denda bateko arraiñ  
erre-usaiña suurretan ziar sartu jatanian... edonok egingo leukie-  
na nik be.



**MUITIZ:** Banajekijan nik. Mizke asiriko umia edonun agiri. Amen jeuan ire Aita zaar au orretariko asmo andi barik. Goixeko ixarretarako jagiarren, barua ausi baiño besterik etxuat egiñ, gosalduteko najagok ondiño. Ai geure gaztetasuna ta geure mentasuna! Arek zirian urtiak! Gaurko gaztiok jan-edanerako, or da emen ibilteko ta oskilkerijetarako baiño eztozue balijo.

**ANTON:** Gixonak aaaa. Beiñ Bilbora etorri ezkeru...

**MUITIZ:** Bilbon najagok neu be.

**ANTON:** Arrain usain gozo estija artu dodanian, barru guztija zabal zabal egiñ jat.

**MUITIZ:** Bai e?

**ANTON:** Alakorik! Arranua! Ondo begiratu dot neuk barrura, andiki-tokija eritsi dausat, eta karutxu ixango dala be otu jat, baiña... «aurra! gaztiagotan eztok egingo, Anton; beiñgua gorabera ixango al gozak, gajoiazan barrura». Auxe esan dot neure artian, da beti bertako bezerua ixan banintz lakoxe lautasunaz «egun on» esan dauset, «egun on» erantzun dauste; ta euskeraz, gixona, euskeraz Bilbon. Ondo artu nabe, Aita.

**MUITIZ:** Madari madarija! baiña ni beti lenera. Da Txomiñen ganeko *kin-tako* arazua?

**ANTON:** Egon beiñ, ezkaroi az urak be ta. Ondo artu nabe, sekula iñora ondo artua ixan bada. Larrosia lakoxe arpegi ederrekua da uga-zaba-andria, arrautza-perretxikua berberbera. Jaungoikuak urte on askotan gorde daijola bizija! Kosepantoni neure emaztia be mardua ta galanta dot, baiña a be...

**MUITIZ:** Madari ma...! Esango neukez esapide gogorrak. Gixon onen barritsua ta ganora bakua! Neu beste beiñ eugaz iñora etorri? Uuuut.

**ANTON:** Ori esanarren eeee.

**MUITIZ:** Tira tira amaitu daigun autu au. Errial zidarren bat itxi biar ixango dok, ezete?

**ANTON:** Egija esateko, errial bi ta erdi kendu daustez, baina zelako gosarrija?

**MUITIZ:** Errial bi ta erdi! Aitaren, Semiaren (*emen Aitaren-eko kurutze bat egin bei*). Lotsa be ez aix lotsa be? Ondiño geijago entzungo dot. Errial bi ta erdi, diraste, errial bi ta erdi. (*Urreng berbaak entzuteko moduan esanarren beren buruari bakarrik esanikuak lakoak ixan biar dabe*). Muitiz, Muitiz zaarra: erruki aut gixagaixo ori. Ekiñ ekiñ urrenguan be laijetan da zimaurgiñen da aitzurketan da

bedarra ebaten. Gorde gorde lauzuriko-laumarikuak. Kosepantoni Muitizko, neure erran berakatz-atala: eguzkijaz batera jua ai goixian goixian urira ortuarijak saltzeko arduriak. Bai, Kosepantoni, atara ixerdija lodi, aurrerantzian be soiñeko zaarren magaletan dindirri ta brijal da pistiñak agiri ixango jakuz guri. Kutxa-onduan zurikorik badago, nok urundu bago. Gagozan gu gaurrate legeez begijak txikortu arte biarran, Anton basto *trabenarik trabena* ibilli daiñ.

*(Muitizek onetan diarduan artian, Antonek lau edo bost bidar Muitizi berbia atzeratu nairik baiña... baiña... esan biar dau. Jagi beite atzenz Anton da irausteko dagola, sartu bei Txomiñ.*

**TXOMIÑ:** Egun on.

**ANTON:** Ordu onian ator, Txomiñ; belarriak be miñberatuta jaukadazak. Onako txirritolarik! Nik entzun dodaz entzutekuak! Ardau-tanta bigaitik orrenbezte...

**MUITIZ:** (*Bizkor bizkortxu*). Tira ixillik, gaztien aurrian ezta olakorik aita-tu biar da.

**ANTON:** Beiñ edo beiñ ixildu garianian!

**MUITIZ:** Zeiñ ordu ixan dok, Anton, Diputau ori ikusi dauanian?

**ANTON:** Diputaua ikusi? Bai ta zera be! Barriketa asko geijegi egiten dauskuez olako andikijak *boto*-billa jatorkuzanian.

**MUITIZ:** Orduan aaaa.

**ANTON:** Zotza lakoxe gixon txakill zimel katu-bixardun kaltza-estu batek burua erakutsi daust, Diputauan ixenian datorrela-ta.

**MUITIZ:** Euk uuuu zelako adibidiak edo agerketaak edo autuak erabilli dozak eure gogua gixontsu orri adierazoteko?

**ANTON:** Al ixan dodan argijen da zietzen erakutsi ta azaldu dausat geure gurarija.

**MUITIZ:** Erderaz egin badok ooo, ik erderaz ederto dakik nik etxakijat baiña.

**ANTON:** Bai, erderaz erderaz.

**MUITIZ:** Abadian papera emon ixango dausak.

**ANTON:** Bai, emon ez, txapel-barruan euki ta? Txakillak alakuak txapela janzteko be esan ez! Jantziko ezpaneban be, besterik ezarren esan? Zer galduko ete eban niri ori esanda? Aunakoxia da. (*Au eserau eskerreko atz biaz estutu bei matraillak*). Txijorik be badago ak baiño zolijago *txio txio* egiten dabenik. Berantz natorrela ta



berak ez entzuteko moduan «eztok ik gaur arte arto-zati andirik jan, *koitadu* orrek», esan dot neure barrurako.

**MUITIZ:** Agertu ete dauksa gero berak Diputauari abadian papera?

**ANTON:** Baietz esan dau.

**MUITIZ:** Esan ete dauksa inutill au bakarria dogula, geu zaarrak gagozala, etxia zutunik euki gura bada, mutill au geugaz biar dogula?

**ANTON:** Baiedo... batek badaki.

**MUITIZ:** Orretan gagoz?

**ANTON:** Ordu bete barru onaxe geugana etorriko dala esan daust, eta ementxe adierazoko dauskula Diputuan eritxija.

**MUITIZ:** Ezta agiri ba ta... Ondo esan dauksak gero euk geu nun gagozan?

**ANTON:** Bai orixe: «Calle de Sómera, Trábena de Canton», esan dauksat.

**MUITIZ:** Orduan laster ixango da.

**ANTON:** Erdaldun artian gabilz da eztaikit. Txomiñ neure seme maite au or ziar soldau baleroiaskue, Arranua! ni Bilbora bigarrenez etorri orduko urtiak igaroko dira. Diputauagaz berba bi egitiarren beste zer barik etorri, ta eziñ lortu? Zaldi anka-lodijak: okerrik gertako balitzakit, enozue beingo beinguan ikusiko.

*(Kintuen gitarra-otsa entzun bei).*

**MUITIZ:** Zaratia dantzut.

**ANTON:** Bai, bazkaldutera datoza mutillak dira.

## 2. AGERRALDIJA

### LENGUAK ETA KINTO-ALDRA BAT

*(Aurretik Teles deritxon mutill gazte bat, beren atzetik errenkada bitan anmasei edo amazortzi kinto, batzuk gitarra-joten, eretzen bestiak. Lau edo bostek txapelian inkata paper zurizak dakarrez, da paperetan kintako zenbakija iratsita. Telesek beren txapelian 2 andi bat erakutsi bei).*

#### EREZUJA

Urta labiru labiru  
labiru labiru lena.

Urta labiru labiru  
labiru labiru lon. (*Birritan*)

Urta labiru lena, lena!

Urta labiru lena, lena!

Urta labiru labiru  
labiru labiru lon (*Birritan*)

Trula trula trula trula

trula trula trulalai

trula trula trula

trula trula trulalai.

Trabara trabara trabara trabara

trabara trabara trulalai

trabara trabara trabara trabara

trula trulalai.

*(Bigarrenez guztija erezi bei ta gero Gitarra-joten diarduen artian kintoren batek zantzo andi batzuk egin beiz, gero Telesek):*

**TELES:** Biba los quintos.

**GUZTIJAK:** Biba.

**TELES:** Biba Sagasta.

**GUZTIJAK:** Biba.

**TELES:** Biba Cánovas.

**GUZTIJAK:** Biba.

**TELES:** Biba los Fueros.

**GUZTIJAK:** Biba.

**TELES:** Biba Sorrilla.

**GUZTIJAK:** Biba.

**TELES:** Biba abuelo. (*Leporatu beijo besua Muitizi Telesek*).

**GUZTIJAK:** Bibaaa.

*(Irugarrenez erezi beije Urta labiru, trula trularaiño elduarte).*

#### IRAUTXIJA

**TELES:** Corneta: venga usté aquí. Toca á baillar.

*(Telesek berak ukabilla ezpanetan ipiñita adarra jotzen legez Taratatiñ zoli zoli didar egiñ bei. Gero gitarra-jotzen asi-*



*takuan, Teles da laguna dantzian asi beiz, bestiak urrengo berbaak erezten diarduen artian).*

## EREZUJA

### BATZUK:

#### I

Arrantzaliak barua ausi ta  
kanpora doiaz zintzorik  
betoz guztijak osasunagaz  
eta iñor bere ez gaixorik.

### GUZTIJAK:

*Otzaratxu bat  
otzaratxu bi  
arraiña dator  
portura beti  
besigu lebatz sardina ta atun  
eta beste asko ganeti.*

### BATZUK:

#### II

Errira datoz ipar-aldeti  
belak betian ontzizak  
ondo dirudi egun argitan  
belan dabillen ontzizak.

### GUZTIJAK:

*Otzaratxu bat...*

### BATZUK:

#### III

Betoz otzarak, betoz arratzak  
Arraiña dator ugari  
gaurko itxasuak poztuko dautsa  
begija mandazaiñari.

### GUZTIJAK:

*Otzaratxu bat...*

### BATZUK:

#### IV

Txalupa andijak berrogei arratz  
besigu dakaz eginak  
ogeta amar bat txikarrak eta  
larogei lebatz potiñak.

### GUZTIJAK:

*Otzaratxu bat  
otzaratxu bi  
arraiña dator  
portura beti  
besigu lebatz sardina ta atun  
eta beste asko ganeti.*

## 3. AGERRALDIJA

### LENGUAK, ETA BEATO

*(Erezi-dantzia amaitu aurretixuan agertu beite señor Beato erdal-duna, dotore jantzita, zaldun makilla ta betaurreko ta guzti: andikerjaz da latz latz berba egin bei).*

**BEATO:** Cállense ustedes.

*(Guztijak bat batera ixildu ta gero urreratu bekijo Teles Beator, berba onek erezijaz):*

### TELES:

*Arraiña dator  
portura beti...*

**BEATO:** Cállate, estúpido; y si has de hablar habla en cristiano. *(Alde guztijetara begira)* ¿No está aquí... ¡ah! vamos *(Antoni)* véngase por aquí, buen hombre. *(Mutillai)* Vosotros largo, largo. A ladrar en vascuence se va á otra parte: á la cuadra. *(Kintu guztijak sartu dirianez urten beje urra labiru erezten).*

**ANTON:** Txomiñ: ator ona i, gelditu ai geugaz, da entzun daijogun txepetx oni zer dakarren. *(Urreratu bekijoz Beator Anton Muitiz da Txomiñ).* *(Beator).* Gauza onik egiño ete dogu adiskidia?

**BEATO:** Hable V. en cristiano. Ya me revientan ustedes con sus ladridos.

**ANTON:** Pues... pues... yo bien no saberr y...

**BEATO:** Pues aprenda V. á hablar, pedazo de alcornoque; y deje usted ese dialecto que ni el diablo lo entiende.

**ANTON:** ¿Qué dise el Borrego pues?





**BEATO:** El borrego y el macho será V.; que mi principal, para que V. lo sepa, se llama don Julián de Borrego y Encino. ¡Con el animal! Si quiere nombrarle llámele V. don Julián ó señor Borrego. ¿Me entiende V. pe-da-zo de a-cé-

**ANTON:** ¿Eh?

**BEATO:** De acémila, y me quedo corto. ¿Me entiende V.?

**ANTON:** Así, así, pues.

**MUITIZ:** Zer diño gixontxu onek, Anton?

**ANTON:** Neuk baneki!

**BEATO:** ¿Qué demonio hablan ustedes ahí? Y á V., buen viejo, ¿quién le ha dado vela en este entierro?

**MUITIZ:** Yo... enterro enterro... (*Antoni*) Enterro ill da lurpetutia ezta?

**ANTON:** Bai, ausa.

**MUITIZ:** (Beatori). Yo enterro no vivir.

**BEATO:** (*Irri-barrezka*). Quiero decir que á V. quién le ha llamado.

**ANTON:** Nok dei egin dautsun diño.

**MUITIZ:** Yo (*Antoni begira*) padre; yo (*Txomiñi begira*) padre padre, dos padre; y... no entender... nara nara.

**BEATO:** Pues oiga V. padre padre: su hijo hijo soldado ser.

**MUITIZ:** (*Atsakabe andijaz*) Soldao, soldao! Banekijan nik eta... Anton: agur gu. Ene billoba bijotzekua, neu barik iñun egon bakua, norako aix? zer ikusteko gagoz? Txomiñtxu neuria. (*Txomiñi beren albuari jezarrri eragñiaz*). Oneiarako ekarri nabe ona aingeruak?

(*Muitiz Anton da Txomiñ bera begira atsekabezko negarra euki eziñik dagozan artian, Beatok alde guztijak begijakaz aratuten da vamos vamos noizian beñ esaten iarduko dau.*)

**MUITIZ:** (*Zutunik, Beatori begira*). ¡Soldao, soldao! Y... (*Antoni urrengo berbaak*). Esan eijok oni, Anton abadian papera nun daben, da neu lakuak balizatekez euskaldun guztijak, elizatekezala erdaldun oskillok gure artian ogeta lau ordutan egongo, Arraijua!! (*Au esieran orpuaz beñari ots andi bat enon beijo*).

**BEATO:** Vamos, calma, viejecillo de vinagre; que otros más guapos también van. Y además que á éste no le vendrá mal la garlopa. Que le lleven á civilizarle un poco, que ya habrá necesidad. (*Txomiñi*). ¿Verdad V? (*Antoni*). Antonio, Anton ó como le llamen.

**ANTON:** ¿Papal de cura dónde?

**BEATO:** Aquello no vale nada. Acabemos pronto, que no tengo tiempo para perder viendo mojigangas. Yo vengo de parte de don Julián á decirle á usted que ha hecho todo lo posible, pero que no hay remedio.

**ANTON:** ¿Erremedio no estar? Si yo rico ser, erremedio sí estar. Yo probe aldiano y á probes no caso don Kulian ó Borrego ó ese.

**BEATO:** (*Besuk batuta*) ¿Habrased visto pedazo de...? ¿Si digo yo que este país...! Conque lo saben ustedes ya. Eh, padre padre, abur.

## 4. AGERRALDIJA

### SR. BEATO BARIK LENGUAK

**MUITIZ:** (*Naibagez beterik*) Au dogu lorra! Au dot atsekabia! Ez eustan ba euk esan, Anton, ez euskuela geure mutill au matasa onetan nas-tauko? Zarraak giñiñala ta zutunik; egon al ixateko biar gendualako? Legezko zera zala? Abadiak be baietz uste ebalá?

**TXOMIÑ:** Aitita: urte bitarako baiño ezta ixango ta ez larritu orrenbesteraíño.

**MUITIZ:** (*Bizitasunaz*) Zer dogu au? Lenagoko euskaldunak euren buruen jaube zirian, gaurkuak gure umien jaube be ezkara. Nik onako juan-etorrijetan ezta ezer baiña zetarako zaituez gobernu txarrijak eulijak ilteko edo ixan ezik? Euron semiak eruango baleutsez, laster kenduko leukiez onetariko lege diabruzkuak. Zer diñodan be ija ezta ekit. Kesus maitia, au dogu lorra! au dot atsekabia!

**ANTON:** (*Bera begira, luzarotxu egon da gero*). Aita: burutasun bat daukat. Egija ez ete da? Guri, euskaldunoi gorroto ta iguiñ andija dauskue olako txakill ezereztxu orrek.

**MUITIZ:** Zeiñ dok burutasun ori?

**ANTON:** Len etorri jakun erdalduntxu ori, benetan ete dabill?

**MUITIZ:** Bai, ibilli ez osterá?

**ANTON:** Egingo neuke tema Diputauri eztautsala nire arazo onen barrik jakiñ eragiñ.

**MUITIZ:** Ori egiñ ete jok ba!

**ANTON:** Nik neuk uuuu, berandutuko ezpalitzakit iiii...



**MUITIZ:** Bakit urrian zein dan ire asmu ori, baiña ik eztok balijo. Txomiñ laguntzat artu ta neu juango nakijo *Diputau* orri. (*Jagjaz*) Txomiñ, tira, erderaz egin biar ixango dok, eta esatekuok gero zuzen da argi argi azaldu gero.

**ANTON:** Aita: guk ibilli ta ibilli semia geugaz etxeratuko dogu. Ona gero: ez aaztu dinodana. Neuri esan daust Abadiak: «Diputauak nai ixanezkerok, eztok buruko minik ixango».

**MUITIZ:** Ai ori balitz! Urkiolara juango nintzateke neure Txomiñtsu one-gaz.

**ANTON:** Bai ta neu be.

**MUITIZ:** Orretarako bai obiak gozak gu.

**ANTON:** Pozik egon ba ta laster agertu. Geutzat ixango da seme au. (*Muitiz ta Txomiñ daiazala, Anton euren jarrai doia*). Aita, Aita: gero gose ixanez kero...

**MUITIZ:** Ez nik, ni ez. Ezeik euk bigarrenez gosaldtu.

**ANTON:** Nik bitartian zer edo zertxu ereziko dot.

(*Muitiz da Txomiñ kanpora*).

## 5. AGERRALDIJA

ANTON BAKARRIK, GEROTXUAGO DURANGARRA

(*Anton bakarrik gelditu daiñeko Pianuak jo bei zortzikuan asieria*).

### EREZLIJA

**ANTON:**

Ene seme laztantxua  
Amagandik nora ua?  
Beste magal epelago  
bat erbestian eztago.  
Ene Txomiñ laztantxua  
Amagandik nora ua?

**DURANGARRA:** (*Sartuta batera*)

Ene gixon tximurtxua  
on dok gose-soiñua.

**ANTON:** Non billa ator ona?

**DURANGARRA:** Jaki-billa.

**ANTON:** Zein erritakua aix?

**DURANGARRA:** Durangarra.

**ANTON:**

Durango-aldian  
goiko kalian  
izeko zaartxu bat...

**DURANGARRA:** Neu jaijo nintzan kalian.

**ANTON:** Ill edo bixi jat.

**DURANGARRA:** Nor dok ixeko zaar ori?

**ANTON:** Maiñatxu Muitizko?

**DURANGARRA:** Neure Ama.

**ANTON:** Bixi da, ondiño?

**DURANGARRA:** Itsu dago. (*Bijok batera*).

**ANTON:**

An dagolako  
Urkiolako

**DURANGARRA:**

Aidientzako

**ANTON:**

igan-alditxuan

**DURANGARRA:**

maitetasuntxua

**ANTON:**

nai ixango dot jua

**DURANGARRA:**

da beren gogua.

(*Bijok batera ta bardin*)

**ANTON da DURANGARRA:**

Baserriko bizitza  
zorijonekua  
ibaiko urak legez  
ziriñ ziriñ dua.  
Bilbotarrentzat Bilbo  
mendi-goijak nitzat  
ats onen ordezt betor  
lora-usaiñ gozo bat.



Baserriko bizitza  
zorijonekua  
ibaiko urak legez  
ziriñ ziriñ dua.

### IRAUTSIJA

ANTON: Zelan dok euk ixena?

DURANGARRA: Nik Donato.

ANTON: Eskonduta ago?

DURANGARRA: Alargunduta aspaldijon be.

ANTON: Orixe txarra.

DURANGARRA: Eta ganera Ama zaar itsutua zaindu edo jagoteko biar neban seme ona *kintu* eruan biar ei dauste.

ANTON: Madarikatuak ixan daixala katai onek ezarri dauskuezan lege-  
giñak.

## 6. AGERRALDIJA

### LENGUAK ETA ERROPAILL

DURANGARRA: (*Antoni, Erropail eurakanantz datorrela*). Amen berau. Auxe dot semia. (*Erropaili*) Zer dakak?

ERROPAILL: Txomiñen Aititak mandatari bat biraldu dau, atian dago ta eztau sartu nai.

ANTON: Nire billa ete dator?

ERROPAILL: Baietz diño. (*Kintuen zaratia*).

ANTON: Gaijo iazan ba. Aur orrek be. Geroarte, Donata. Geroarte, txo-  
txo. (*Anton kanpora*).

DURANGARRA eta ERROPAILL: Geroarte.

## 7. AGERRALDIJA

### DURANGAR AITA-SEMIK ETA KINTUAK

(*Bigarren agerraldijan legetxez datoz kintuak eretzen. Geruago  
Txiiñel bat agertuko da*).

### EREZIIJA

Ai Petratxu etzaiuez gorritu  
neskatilla pollita zara zu  
Aita datorrenian *nian*  
Ama datorrenian *nian*  
etxetik kanpora  
botako zaitu. (*Birritan*).

(*Telesuk ukabilla ezpanetan daukala adar-ots modura Taratatiñi  
lenago legez egiti be*).

### IRAUTSIJA

TELES: (*Didarrez*). Patrona: rancho.

Biba los quintos de este añoooo.

GUZTIJAK: Bibaaa!

TELES: Biba la republicaaa.

GUZTIJAK: Bibaaa!

TELES: Biba Doña Margaritaaa.

GUZTIJAK: Bibaaa!

(*Bigarrenez Ai Petratxu erezi beje, ta amaitu orduko agertu be  
geldi geldi Txiiñel bat. Ixildu beitez guztijak au ikusita*).

TXIÑELA: ¿Quién ha gritado *Viva la República*?

TELES: (*Eskuaz buruari ikutuaz gertari edo soldauak agur egiten daben antzera*).

Mi coronel: yo en *groma* señor.

TXIÑELA: (*Atara be paper-moltsua ta lapiz bat miñian ondo bustita gero diño*).

¿Cómo te llamas?

TELES: Teles. (*Txiñelak belaunian paperak ipiñi ta ixen au iratsi be*).

TXIÑELA: Pues mira: debéis tener respeto á la autoridaz: eso es. Y en esta  
ocasión, en la ocasión presente yo soy la autoridaz: eso es.

TELES: Mutillak (*ikutu beijo sorbaldan Txiiñelari*): este la autoridazz: eso es.  
Y... errespetar la autoridazz: eso es.

TXIÑELA: Mira que te pego.

TELES: Biba los chineles.

GUZTIJAK: Bibaaa!



**TELES:** Biba mi coronel.

**GUZTIJAK:** Bibaaal

**TXIÑELA:** Si dais otro grito, os voy á llevar á la cárcel: eso es.

**TELES:** (*Bigarren ez egín beje Txinolari soldaukijen agurra*). Oiga usté, Sanchez. ¿En la cárcel ya está pi-ano ó... orgáno ó... así?

**TXIÑELA:** ¿Para qué lo quieres, mastuerzo?

**TELES:** Para bailar tú y los dos: eso es.

*(Guztijak algaraka zarata andi bat egín beje. Bitartian Txinolak didarrez da eurai bultzaka á la cárcel bi edo iru bidar esan bej).*

**TELES:** Biba la cárcel.

**GUZTIJAK:** Bibaaal

**TELES:** Ia mutillak: jo kitarria *ran ran ran*.

*(Ots egín beje gitarrak, erezi beje urra labiru, Txinolak «á la cárcel» batzuetan esanaz eratzi bei Estalkija).*

## BIGARREN ATALA

*Ikuslien eskerreko aldian mai asitxu bat. Toki agiri baten kurtzia esegita. Beren azpijan Erregiñan irudija, eskoletan ei danez. Or da enen eraz esegita irakurteko kartoiak. Sei edo zazpi errenkadatan umientzako jartokijak irasteko maitu ta guzti. Jartokijen inguruan igitu beitez ogetalau bat ume, ta bira biraka geldi geldi dabilzala erezi bejez gero erakutsiko dirian berbaak. Maixua egon bei zutunik beren mai onduan, beren ondotik igaroko dira umiak eskolatik urteteko; bitartian umiak banan banan erakutsiko dautsez berari euren atzazalak eta esku-barruak.*

### I. AGERRALDIJA

MAIXUA, ESKOLA-UMIAK URTETEN DA GEROTXUAGO  
TXOMIÑ

#### EREZIIJA

*Buenos seamos  
que Dios nos vé*

A Dios piadoso  
debí el nacer.  
Y díome padres  
para mi bien  
me dá alimento  
templá mi sed.  
Buenos seamos  
que Dios nos ve.

*Buenos seamos..*

Si el desvalido  
pide merced,  
si al triste aflige



suerte cruel,  
ese que llora  
tu hermano es.  
Buenos seamos  
que Dios nos ve.

*Buenos seamos...*

No al malo envidies  
aunque tal vez  
impune ostente  
gloria y poder,  
que allá en el cielo  
hay otro Juez.  
Buenos seamos  
que Dios nos ve.

*Buenos seamos  
que Dios nos ve*

*(Umiak urten aurretixuan sartu bei Txomiñ kintuz tsantzita.  
Espeiz aaztu buruko txapeltxu biribilla, kaltza gorrijak, iduneko  
zapi seda edo zirikozkua, eta tutulo bat samatik dingilizka.  
Guztijek urtendakuan, maixua Txomiñegana besuak toleztuta  
juanaz autu au asiko dabe).*

**MAIXUA:** Sois más zoquetes que los de vuestros robles y castaños. Cuidado que sois duros de cabeza! Sois así (*au esaeran ots eragiñ beijo eskuaz majari*). A terco dicen que nadie gana al vizcaíno. A lerdo y duro de entendederas si que no le gana nadie. No puedo meterles el Credo por cuanto hay.

**TXOMIÑ:** No entenderán y...

**MAIXUA:** ¡Pues tiene gracia! Que aprendan el castellano como todo buen español. Yo hago, como tú sabes, todo lo posible por civilizarles; pero á pesar del *anillo* y del castigo que todos los sábados impongo á quien le tiene, de hacer con la lengua siete cruces en el suelo y recibir unos cuantos lapsos donde tú sabes, sin embar-go, en cuanto salen de la escuela *chis chas chis chas* dale que le das, comp unos grillos hablan en su abominable dialecto.

**TXOMIÑ:** A mi tamién ee el cabo segundo cuantas beses me ha peao por-que te hemos hablao en bascuense.

**MAIXUA:** Dí. Cuando andabais á la escuela ¿os imponían el anillo por hablar así?

**TXOMIÑ:** ¿Anillo? ¡Josús! Ni tampoco... El Maestro, de *áy* de ese pueblo era y ¡cá! el tamién en bascuense nos desia la dotrina y así.

**MAIXUA:** ¡Claro! Es lo que digo yo siempre: deles V. á estos un maestro como ellos, paisano suyo, tan rudo, tan tarugo y aficionado á hablar el *chis chas* como ellos, y este pueblo no se cultiva *in secula seculorun*.

**TXOMIÑ:** *Amen. (Mutiltxu bat sartu bei ardauaz da ogjaz).*

**MAIXUA:** No me interrumpas. La voz del maestro debe ser escuchada. En las primeras conferencias pedagógicas voy á proponer que para ser maestro de las provincias vascas sea impedimento el ser hijo del país. Así se borra antes el dialecto y se tienen profesores dignos de este nombre.

**TXOMIÑ:** ¿Qué me dijo usted ayer porr el alcalde y por el cura? Bien bien no entendí.

**MAIXUA:** Que no me pueden ver ni pintado y yo no puedo verles ni en sombra. Una de las cosas malas que tenemos los maestros castellanos en estos pueblos es la influencia del cura. ¡Cómo todos son de aquí! si fueran de nuestra tierra ¡toma!

**TXOMIÑ:** El cura pues bueno ya pasese. Una peseta me dió cuando viné tamién.

**MAIXUA:** ¡Toma! ¿No sabes que estams en vísperas de elecciones? Es muy zoquete, pero para sus cocas es más lince. ¡Uf! Mira: te digo la verdad. Si yo no tuviera cariño á estas tierras... vosotros creeréis que no, pero... ¡Lo que son las cosas! La mujer siempre me dice: «Mira, José: tu tío el canónigo está deseando de que vayamos á vivir con él. Allí no tendrás necesidad de reñir, ni de...

**TXOMIÑ:** ¡iCanónigo!!

**MAIXUA:** ¿Pues qué creías tú? ¿que éramos algunos destripaterrones como vosotros?

**TXOMIÑ:** ¿Canónigo no es despues de obispo ó así?

**MAIXUA:** Cabal. Y mi tío es de los que discurren bien, de los que hilan muy delgado. ¡Uf! ¡Si él hubiera querido, cuántas veces habría sido obispo!

**TXOMIÑ:** Obispo ya he conosido pues yo uno gordo gordo viejo viejo en Samora.



**MAIXUA:** ¡Toma! si es de mi tierra, de tierra de Toro. ¿Cómo se llama él?  
Don... Don... Don...

**TXOMIÑ:** ¿Kerónimo o así? (*Au , jaten diarduala esan bei*).

**MAIXUA:** No, hombre, no: algo así como Tiburcio... Toribio... tiene tres sílabas... si lo tengo aquí (*miñari ikutu beijo*)... En fin es algo pariente de mi madre que en paz descanse.

**TXOMIÑ:** ¿En toavía ya vive la madre de usted? ¿Vieja será, eh? y rica también sí, prima del obispo siendo.

**MAIXUA:** ¡Si vive mi madre! mastuerzo: tiene perendengues la pregunta. Estoy pensando en si mas bien serás tú socarrón que zoquete y zángano. Eso que zángano lo eres y de marca, hijo. Digo mal. Tú no eres un zángano, tú llegas á ser un enjambre de ellos.

**TXOMIÑ:** SÁNGANO ó eso no sé, pero hambre ya tengo. ¿Pa qué es desir que no?

**MAIXUA:** Efectivatnente veo que mientras yo hablo tú zampas y trincas. (*Berentzat berba onek*). ¿Cómo se conoce quien ha de pagar? (*Bestiak entzuteko moduan*). Alcanza ese jarro.

*(Maixuak jan-edanian diarduan artian, kintuak ixiltxurik erezi bei malagueñaren bat. Así ta gerotxuago).*

**TXOMIÑ:** (*Diño*): ¿Y el alcalde qué le ha hecho á usted pues para haserle ayerr así (*ukabillazko zenaija*) por detrás?

**MAIXUA:** ¡Si es peor todavía! Ha sido indiano y gasta bigote, pero el cura le tiene en un puño. No me puede ver, ni yo á el, como te he dicho. Si mañana no triunfamos, mis hijos se quedan sin pan.

**TXOMIÑ:** Ande el canónigo ira usted y la mujerr y los hijos también sí.

**MAIXUA:** ¡Ah, justo! Se me olvidaba. ¡Mira qué cabeza, hombre!

**TXOMIÑ:** Manana si-erto si-erto benserr haremos, Borrego ó ese será Diputao.

**MAIXUA:** Dios te oiga, hijo. Yo creo que sí, eso que la parte contraria ¡canario! es fuerte, es del país ,y tiene muchos amigos, es verdad; pero tú, *mutil*, ante esto (*atz bi erabillijaz dirua iragarri bei*) no hay *tu tía*. Borrego tiene mucho *cum quibus*, aunque no sé como anda de *nostras voces*.

**TXOMIÑ:** Usted siempre con gramáticas y así.

**MAIXUA:** Quiero decir que al *cum quibus* (*bigarrenez atzakaz dirua iragarri bei*) debe seguir el ser atento á nuestras voces de petición pecuniaria y tal. ¿Me entiendes, buen amigo?

**TXOMIÑ:** Yo no, nada casi.

**MAIXUA:** Pues ya lo entenderás. Mira: estamos muy arrancados, hijo; y en extrema necesidad todo es de todos. Si Borrego no responde, Borreguero, ó sea el señor cura, responderá de buen ó mal grado. Viniendo á lo primero, quiero decir, vamos al caso, que debes escribir á Borrego, exponiéndole tu situation y pidiéndole que te abone un jornal por tus trabajos electorales, otro en cambio del que pierdes no trabajando en casa; y en fin que te indemnice tambien los disgustos que te hace sufrir tu padre.

**TXOMIÑ:** ¿Yo para escribir á Borrego disusté?

**MAIXUA:** Claro, hombre.

**TXOMIÑ:** Pero yo no se gramáticas ó esas cosas.

**MAIXUA:** No ta apures, hombre; aquí estoy yo que te puedo dictar, basta que eres amigo y que pagas estos traguetes. Ahora tú en tu claro criterio comprenderás que así como tú le pides el pago de tu trabajo, también yo...

**TXOMIÑ:** ¿Uste tamien ee jornal á Borrego?

**MAIXUA:** No es eso, no me has entendido. Tú escríbele, él ta manda dinero y haremos á medias.

**TXOMIÑ:** (*Eskumiari gora ta bera, erreriko moduan eragnaz*). ¡¡Coooncho!!

**MAIXUA:** Ya tú ves: el trabajo, casi todo el trabajo es mío; tú al cabo sales bien librado. ¿Me entiendes? ¿Has caído ya en cuenta?

**TXOMIÑ:** Vamos pues. Más probe que somos... Por diñero arriba abajo...

**MAIXUA:** Y por ahorrar tiempo he escrito la carta durante la clase. Tú debes copiarla letra por letra.

**TXOMIÑ:** ¿Y pirmar tamien sí, eh?

**MAIXUA:** *Pirmar* también sí. Te voy á leerla; y si tú que ya has corrido el mundo y que habrás tratado por allí con gente lista encuentras algo así... vamos, alguna otra manera de exponer al señor Borrego tu necesidad... En fin ya me entiendes. (*Irakurten*) «Sr. Diputado: (*Onetan eskolako atia kanpotik jo beije*). (*Txomiñi*): Mira quién llama. (*Txomiñek atia edegíta mutiltxu bat maixuagana juan bei*). (*Mutitxuari*): ¿Qué traes?

**MUTILTXUA:** Txomiñ á casa para venir.

**MAIXUA:** ¿Quién ha dicho?

**MUTILTXUA:** Anton.

**MAIXUA:** Dile que estamos ocupados.

**TXOMIÑ:** Enoiala esajok, begira ez egoteko. (*Kanpora mutiltxua*).





**MAIXUA:** (*Irakurten*). «Sr. Diputado: Con toda la veneración debida al rango que V. S. ocupa en la sociedad y con todo el afecto y admiración que sus relevantes servicios en pro de este distrito merecen, me pongo á escribir estos mal pergeñados renglones, sintiendo que mi pluma lejos de ser de un pobre licenciado de quintas no sea la de un escritor eximio que pudiera alabar y enaltecer, cual se merecen, sus bellisimas prendas personales, sus notabilisimas virtudes cívicas y sus grandes cualidades de hombre público». ¿Qué tal, qué tal va esto? ¿Te gusta, verdad?

**TXOMIÑ:** Sí, pero no entiendo.

**MAIXUA:** No importa, ello es bueno. (*Irakurten*). «Después de justificar mi insuficiencia paso á exponer á V. S. con toda sencillez y veneración el objeto de mi carta. Es el caso, Sr. Diputado, que la reelección de V. S. vá bien, rnuy bien. Hemos trabajado día y noche por hacer comprender á esta gente la causa de la libertad, distinguiéndose sobremanera en estos trabajos el ilustrado maestro de esta localidad don José Vives Almendralejo; el cual, así corno en días luctuosos para la patria supo en cien combates exponer su vida por la santa causa que V. S. representa, ahora lleva su heroismo al extremo de exponer el porvenir de sí mismo, de su mujer y de sus hijos; pues no deja de comprender V. S. en su ilustradísimo y elevadísimo criterio que la situación en que puede encontrarse mañana este ilustre adalid de la enseñanza, será asaz comprometida y arriesgada, como que se verá rodeado de enemigos, teniendo enfrente á entrambas autoridades: la eclesiástica y la civil». Esto es escribir, amigo. Esto es oro molido, te lo aseguro. ¡Y lo que viene! «Gloria es para nosotros, Sr. Diputado, tener por enemigos á enemigos de la libertad y del progreso. En cuanto á mí, así como yo me he encargado de exponerle los méritos del ilustrado profesor Sr. Vives, asimismo prefiero que é se encargue de exponerle en su día los grandes trabajos que experimento, los grandes gastos que tengo que soportar, los grandes sinsabores que me hacen sufrir mis padres por mi intervención en el triunfo de la libertad. Aparte incluyo á V. S. la lista de los gastos mayores, que hasta ahora llevo hechos á proposito de la elección. No incluyo en ella ni los jornales que hubiera ganado en todo este tiempo en la casa de mis padres (*emen* paterna me gusta más *esan bei maixuak, eta ipiñi bei* paterna, de mis padres-*en ordez*) ni los jornales devengados por mis trabajos en

favor de V. S., ni incluyo tampoco las pequeñas deudas que he contraído relacionadas con este motivo. Espero de la magnanimidad de V. S. atenderá mi reverente exposicion que en manos del Sr. Beato transmito á V. S.— *Fecha et supra*». Esto es... (*Au esanaz bost atz ezpanetara urreratu ta mosu bat bota bei erdal-errijetan oi danez*). «Su rendido y humilde servidor, á quien le cabe la dicha de estar á sus ordenes y reverente besarle las manos». Aquí echarás la *pirma*, como tú dices. Falta la posdata. «Yo soy aquel quinto que con su padre y abuelo se presento á V. S. poco más de dos años há en su domicilio. Ruego á V. S. me dispense el indicar que me urge la contestación y la remisión de fondos. También el señor maestro muy reverente besa á V. S. las manos». (*Papera itxita*). Dos o tres veces suelto la palabra *reverente*, pero no importa. Como su reverencia soltara una vez la mosca...

**TXOMIÑ:** ¡Que carta buena es esa! y... icaracho! ¿Ya entenderá bien bien el Diputao?

**MAIXUA:** ¿Te vá gustando, muchacho? La proclama del Diputado fué buena. Yo creo que se la escribiría algún maestro. Pero aun así al lado de esta carta... Si no te manda cuartos, será porque no los tiene. Trabajo me ha costado, amigo, créeme: un par de días. Ante esto no hay pecho que no se rinda, ni bolsillo que no capitule. ¡Uf!

*(Bigarrenez ateko otsa entzungo da. Juan bei Txomiñ nor dan ikustera ta lengo mutiltxuan aotik lengo mandatua bera entzun dajanian, atia itxijaz asarre gorrijan erantzun bei).*

**TXOMIÑ:** Sentellas! enoiala esaijok eta barriketa geijago ez egiteko.

**MAIXUA:** ¿Qué pasa?

**TXOMIÑ:** Pronto pronto que viene el padre, pero no me iré, ni tampoco...

**MAIXUA:** Tú lo veras. Mira, volviendo á lo de antes: para conseguir una cosa, como habrás visto por mi tierra, lo mejor es decir bien y ponderar mucho las cualidades de aquel á quien se pide, aun cuando sea un borrego (*berentzat au*) como en el caso preseute.

**TXOMIÑ:** En Samora tamien eee.

**MAIXUA:** Déjate ahora de *Samora* y ponte ahí en seguida, ya estás andando, y empieza á copiar.

*(Txomiñ, maixuak iratsiriko papera eskuan artuta mai nagosira doia).*



**TXOMIÑ:** Pero yo solo haserr eso no es posible, es largo y... la comida también aun toavía no hemos comido y... la mitá ó asi...

**MAIXUA:** Comeremos aquí por supuesto.

**TXOMIÑ:** Pero á mí no me dará la trabenera. Ayer me dijo que si no pao toas las comidas hasta de ahora, no me dará más.

**MAIXUA:** Pues mira: para sabido es bueno, mas no te apures. Iré yo,y le pediré la cuenta de don Julián. Tu mientras tanto... copia.

**TXOMIÑ:** La lista primero ¿eh?

**MAIXUA:** No me parece mal. Veo que no eres tonto.

*(Maixua kanporantz doiala , atia zabalduaz batera Anton topako dau; Antonek zoli zoli ¿y mi hiko? esango dau, maixuak: Barrura, or. Sartu beite Anton eskolan).*

## 2. AGERRALDIJA

### ANTON DA TXOMIÑ

**ANTON:** *(Bigun bigun).* Txomiñ, onian diñuat: ator, mutill etxera. Aspaldi guztijon eztok etxian bazkaldu. Ezin kendu dok soinetik jantzi lotsagarri ori? *(Txomiñek begratu be ezpejo egñ).* Ire ama jagi eziñ-dako moduan gaixotu dok; aitita gixagaixua itsututa jagok, begirik etxaukak negar egiteko ixan ezik. Neu be onetariko egun asko igaroezkeroko, laster lurperatuko nok. Au jakin banaijok, jakin, auzuan zor egiñda etxia ta baztarrak salduta baiño ezpazan be, ez endudan polit ori soldautzara biralduko.

*(Txomiñ jagi, paper bijak eskuetan artu, sokondo batera juan da ormara begira dagola irakurten asi bei).*

Txomiñ ene semia, eztiraustak ezer? Zer egiñ dauat nik onetara ni lorpetu ta atsekabetuteko? *(Anton urreratu bei, Txomiñek erremuskadia egñ beijo).* Ezer biar dok? Berba txarrik entzun dok nire autik? Biar eztan egikeraren bat ikusi dok nigan? Txomiñ *(astun astun).* Aita nok. Semia aut.. *(Txomiñek bigarren erremuskadia, Antonek belauñ bat beian daukala jarraitu bei arrenka).* Txomiñ,

Txomiñ: eure amagaitik... Jaungoikuan izenian... *(Txomiñek albo-kerak muker-muker aitari begratu ta zitalkerijaz esan bei).*

**TXOMIÑ:** Barriketaak. Alde ortik. *(Antonek sututa bat batera jagijaz didarrez erantzun beijo).*

**ANTON:** Ez, etsuat alde egiñgo. Onian edo txarrian neugaz etorri biar ixango dok.

*(Txomiñek sakelian paperak gorde ta urtengo dau, beren Aita arrituta atera begira puzka baten egon da ariñ ariñ beren atzetik doiala, maixuagaz topez egiñgo dau. Maixua eskuetan pitxarkada ura ta ogi asi-barri bat daukazala agertu bei, Antonek atzerantz urrats edo oinkada bat egñ da asarrezko bitzetan jaurti beijo maixuari eskuetako pitxarra. Maixuak ikaratuta ogijari jauzten itsi ta Antoni aua zabalik begiratuko dautsa).*

**ANTON:** *(Miñ miñ egñda).* Vives: yo paaré la karra y tú paarás *(ukabill bijakaz zemaitu bei)* si Txomiñ no viene conmió. Maixu erdaldunok, itxi gaixuz baketan beñ edo beñ, etzauguz ezetarako biar-da.

**MAIXUA:** E! néu be badáki euskéra, gitxi bat.

**ANTON:** Obeto alkar adituko dogu. Txomiñ zegaitik ez tator etxera?

**MAIXUA:** Ni ez dáki.

**ANTON:** Nok dauka Txomiñ bazkal-orduan eskolan sartuta?

**MAIXUA:** Ni ez dáki.

**ANTON:** Nok erakutsi dautsa Txomiñi alper ganora bakua ixaten?

**MAIXUA:** Ni ez dáki.

**ANTON:** Nok ipiñi dau Txomiñ Borrego erdaldun orren alde?

**MAIXUA:** Ni ez dáki.

**ANTON:** Nok gaiztotu dau Txomiñ?

**MAIXUA:** Gaizto, gaizto... *(Ezbaijan, zer ete dan).*

**ANTON:** Bai bai. Txomiñ lenago ona, gaur gaiztua.

**MAIXUA:** Aaa! Txomiñ ez gaizto, Txomiñ ona. Zeu oiña *(egin bei pitxarra oiñaz jaurtiteko pariztia) jarra bota.* Zeu gaizto.

**ANTON:** Eta euk zer esan geijago, arlote orrek? *(Oratu beijo Antonek Maixuari samatik eta bultzaka orma kontrara beroia).* Maistro, mais-tro: Dame mi hiko ó usté paará. *(Onetan sartu beite Txomiñ bazkalgajakaz).*

**MAIXUA:** *(Txomiñi).* Amigo: ven acá, acude pronto.





*(Txomiñ eskuetakuak soko baten itxi ta maixuari lagun egitera aurreratuko da; bijon artian erdi-arrastaka aterako dabe Anton, Antonek batian Vives da bestian Txomiñ esanaz didar egin daijan artian. Gero euron aldetik giltzaz itxiko dabe onek eskolako atia).*

### 3. AGERRALDIJA

#### MAIXUA TA TXOMIÑ

**MAIXUA:** Chico, no ganamos para sustos. ¡Cuidado que es terco tu padre!

**TXOMIÑ:** Dejarr eso, dejarr eso. *(Erdi lotsatuta).*

**MAIXUA:** Tiene unas manos de hierro.

**TXOMIÑ:** Ahora á comer.

**MAIXUA:** Creí que me ahogaba. Si no llegas á tiempo...

**TXOMIÑ:** Otra conversación.

**MAIXUA:** ¿Cómo se conoce que...

**TXOMIÑ:** Vives ¿ya sabe uste á bailar flamenco? ¿Qué bonito que es, eh?

**MAIXUA:** Mira: si ganamos la elección, como espero, bailaremos el flamenco y el can-can y todo lo que se quiera. Y cantaretnos un poco de cante jondo: *olé, salero, viva tu mare (ixiltxurik erezten asi be);* y que por cierto vale bastante más que el *Guernica* y que esos otros cantares vuestros que parecen ó de borrachos ó de sueño-lientos ó de gentes que lloran la muerte de la borrica.

**TXOMIÑ:** ¿Vamos á cantarr eh?

**MAIXUA:** Vamo allá. Mientras tanto se enfriará eso.

**TXOMIÑ:** ¿Ya sabe usté aquella cansión del Torero y del Diputao? ¿Yo soy Diputao por Navalmoral.. aquello?

**MAIXUA:** Hombre, sí. Empieza tú, y yo te seguire; ó si quieres...

**TXOMIÑ:** Yo lo del Torero sé más bien...

**MAIXUA:** ¿Parece que te gusta más ser Torero que Diputado?

**TXOMIÑ:** Ya lo creo. En coche suelen ir á la plasa tamien.

**MAIXUA:** ¡Ole ya! Pues ea.

*(Orkestia joten asitakuan maixuak puzka baten eskumako ankiari eragiñaz txaloka eruango dau erezijan kompara edo neurrija).*

Venga de ahí.

#### ERESIJA

**MAISUA:**

Yo soy Diputado por Navalmoral  
y apoyo al Gobierno Constitucional.  
Si hoy lucho en las filas de la Oposición,  
si hay un cisco aplaudo la Revolución.

**TXOMIÑ:**

Soy una taurina notabilidad,  
yo con el capote no tengo rival;  
pongo banderillas con habilidad  
y despacho al toro de una estocáa.

**MAISUA:**

Voyme á las Cortes voyme á enterar  
si ya la crisis resuelta está.

**TXOMIÑ:**

Voy á la plasa voy á matar  
viva el toreo, viva la sal.

**MAISUA:**

Sin miedo al ministro ni al rey que rabió  
provoco las crisis con la discusión,  
trasteo al novato, le rindo á mis pies,  
dimite y se larga en un dos por tres.

**TXOMIÑ:**

No hay diestro que sepa como este gachó  
hurtándole el cuerpo salir del pitón,  
limpiándole el morro con mucho primor  
le pongo á la fiera en disposición.

**MAISUA:**

Voyme á las cortes...

**TXOMIÑ:**

Voy á la plasa...

**MAISUA:**

Cerrando los puños y alzando la voz  
apago los fuegos de la Oposición,  
la cito en un quiebro rompiendo el bastón



y al fin la remato con la votación.

**TXOMIÑ:**

Si el bicho se ceba le paro los pies  
con unos recortes que yo me los sé,  
le doy mucho trapo, le cito con fe  
y al fin le remato con un volapié.

**MAISUA:**

Voyme á las Cortes, voyme á enterar  
si ya la crisis resuelta está.

**TXOMIÑ:**

Voy á la plasa, voy á matar  
viva el toreo, viva la sal.

#### IRAUTSIA

**TXOMIÑ:** Esta cansion el sargento y... solian cantar.

*(Norbaitek eskolako atian kisketa jaso nairik zarata egingo dau, ta edegí eziñ dabenian dart dart eragingo dautsa atiar, ukabilka-ba batzuk emonaz. Maixuak atz bat ezpanetara eruan da ixillik egoteko agiñduko dautsa Txomiñi. Alkatiak kanpotik berba zoli zoli egingo dau).*

**ALKATIA:** *(Kanpotik).* E, zabaldu ate au, bestela ukabilka eratziko dogu, ta gero kontuak atara.

**TXOMIÑ:** *(Ixiltxurik)* Vives, abrir. *(Vivesek bigarrenez ixillik egoteko agiñdu beijo).*

**ALKATIA:** *(Atiaz drangadaka).* Ukabilka eratziko dogula. Vives, abra usted, aquí está el Juez y ya vera lo que le acontece.

**TXOMIÑ:** *(Zoli).* Vives, abirir uste, ó yo lo demás.

**MAIXUA:** *(Nasaitasuna erakutsi gurarik).* Allá voy, señor Alcalde, allá voy y tenga V. la bondad de esperarnos un momento que estamos ocupados.

*(Artietan maixuak pariztaka adierazoko dautsa Txomiñi otzara ogi pitxar ta bazkalgai guztijak mai nagosipian eskuta daizala. Guztija ezkuta daijenian, maixuak adiskide-usaiñeko arpegjaz atia edegiko dautse zaiñ daukazanai).*

## 4. AGERRALDIJA

ALKATIA, MAIXUA, ERABAGILLIA (jueza), ANTON DA  
TXOMIÑ

*(Alkatiak Amerikarren antzera c ta z esan beiz, eta Arratijako euskera-modua dauka).*

**MAIXUA:** *(Atia zabalduaz).* Señores: tengan ustedes buenos días o buenas tardes. ¿Que prisa tenía usted, señor Alcalde?

**ALKATIA:** Buenas tardes y buenas palabras como de costumbre ¿no?  
*(Txomiñi):* Ai Txomiñ: onako gizonakaz *(maixua iragarriko dau eskuaz)* ezai batu.

**MAIXUA:** Señor...

**ALKATIA:** *(Ez entzun egiñda)* Izan ai eure Aita lango gizona ta edonon abegi ta arrera ona egingo daue.

*(Anton bizkor bizkor Txomiñegana urreratu beite, Txomiñ bergandik igesi beijua).*

Anton, eztauat esan? Artuik, gizona, arnasa.

**MAIXUA:** Señor Alcalde: creo que un funcionario público merece más consideraciones que las que usted me dá.

**ALKATIA:** Señor maestro: un funcionario público, cuando es bueno, merece todas las buenas consideraciones del mundo ¿no?

**MAIXUA:** ¿Quiere usted decir que yo...

**ALKATIA:** Eso mismo.

**MAIXUA:** Si es rabieta, pase.

*(Antonek bigarrenez asarrezko arpegjaz jarraitu beijo semiari. Alkatiak euren artian sartuta dino):*

**ALKATIA:** Anton, txiki txikitako lagunak gozak biok, maite aut, bene benetan gero, euk bere badakik: egin gizona neure esana eztok damu izango-ta.



*(Ixilleko mandatu bat emon beijo belarrira Alkatiak Antoni eta kanporatu beitez Anton da Erabagillia. Euren artian diarduela, maixuak asarrez esan bei):*

**MAIXUA:** Señor Alcalde: esto no se puede aguantar. ¿Está V. armando alguna trama innoble y vil?

**ALKATIA:** *(Sutu barik).* Vives ó señor Vives, como guste ser llamado: por no entorpecer la elección y sobre todo porque allí en aquel basurero nacional llamado Congreso no anulen el triunfo de nuestro candidato, no quiero tomar ninguna determinación con V. Deje que pase el día de hoy que es de lucha y el de mañana que será de triunfo, y luego ajustaremos cuentas de sus palabras y sobre todo de sus hechos. Porque no he mandado atarle codo con codo, atribuyendo mi prudencia acaso á cobardía ¿no? se ha subido á mayores, hablando de tramas viles e innobles. Sepa que en Bizkaia hay hombres honrados y no se juega con armas sucias.

**MAIXUA:** ¿Es que en mi país no hay hombres honrados?

**ALKATIA:** Por la muestra se conoce ¿no?

**MAIXUA:** *(Txomiñi)* Mira tú, amigo: estos temen la derrota y vienen á entorpecer nuestros trabajos. Tú continua con lo tuyo, y yo mandaré un propio á Beato para que venga sin tardanza.

**ALKATIA:** Ese señor Beato, que también es de la tierra de V., esta ahí fuera y no tardará en entrar: llegará ahorita.

**MAIXUA:** Francamente no comprendo la intencion que le ha traído á V. á este lugar.

**ALKATIA:** Muy sencillo ¿sabe? Como presidente de la elección quiero preparar el local y lo que haga falta.

**MAIXUA:** Bueno, permítame V. que le diga...

**ALKATIA:** Hombre, todo lo que quiera. A los que están en capilla se les concede siempre todo lo que piden, y por cierto de *guagua*, como dicen en Ultramar, o de *gorra* como dicen por acá ¿no? Hable, pues, lo que guste, ya que también está en capilla ¿sabe?

**MAIXUA:** Quien está en capilla es V., á juzgar por su seriedad y tristeza. ¿Ya no hay cantos, señor Alcalde? ¿Y los del día pasado?

**ALKATIA:** ¿Es todo lo que deseaba saber de mí?

**MAIXUA:** Si señor, sí: el por qué no canta.

**ALKATIA:** ¿Quiere oír lo del día pasado?

**MAIXUA:** Enhorabuena.

**ALKATIA:** ¡Va! para que vea que cumplo lo que digo. Nuestra música es como el maná ¿me entiende? Sabe á todo: á unos les sabe á cuerno, á otros les sabe á gloria; y verá cómo lo que yo he de cantar, al mismo tiempo que música fúnebre para usted, es para mí himno de triunfo.

*(Irugarren erezkaija asitakuan agertu bei Durangarra).*

## 5. AGERRALDIJA

MAXUA, TXOMIÑ; ALKATIA TA GEROTSUAGO DURANGARRA

EREZIIJA

**ALKATIA:**

I

Illuntsetako  
txori ar-zale  
txindorri papar  
-gorria:  
lagunak batu  
t'oa Arizpera  
kanta an kantatxo  
-zolia

II

Miru erpedun  
txori-ialea  
arren lagaiok  
baketan  
Gernikan dagon  
txindorriari  
geure legea  
kantetan.



## III

Zegaiti daukak  
txori kantari

*(Agertu bei Durangarra).*

laztantxo orrek

izentzat

Andra Maria  
gutziz garbian  
gozo gozoa  
danontzat?

**ALKATIA eta DURANGARRA:**

## IV

Txepetx kaskartxo  
eskabiztoak  
Golgota mendi  
-buruan  
Andra Maria  
zerutarrari  
loia egin eutsan  
altzuan.

## V

Andra Marijak  
oiñazez illik,  
adore barik  
egola,  
beren altzua  
egazti batek  
nai eban garbi  
eijola.

## VI

Erroi saierre  
arrano bela  
soso ta beste  
lumadun

askok iraindu  
euen Maria  
egin nai ezik  
an lagun.

## VII

Papar-gorritxo  
txori bakarti  
txindorri eder  
garbia,  
beren begiko  
Mariak artu  
ta egin au maita-  
garria.

## VIII

Ire musturtxo  
garbitzailleak,  
zerutar askon  
gutarrak,  
gure Aritzan  
sustraietatik  
kendu ta amaitu  
beiz arrak.

## IX

Oiz-ganeko  
bildots zurijak,  
aurrerantzian  
zororik  
etzaiz izutu  
jatortzunian  
lepule-billa  
txoririk.

## X

Gernika-aldeko  
aritz-txorija



abiagaitan  
badoa,  
Bizkai maiteau  
izenagaitik  
gertuiozue  
lepoa.

## XI

Biribildu eik  
abia bigun  
bildots-ulezko  
beroa,  
ta ire umetxoak  
seaska beuke  
Euskal-Aritzan  
besoa

## XII

Txori galtzaillek  
loituko baleuz  
Zugatz maitean  
orriak,  
garbitu beioz  
men da zintzorik  
txindorri papar  
gorriak

## XIII

Illuntsetako  
txori ar-zale  
txindorri papar  
-gorria,  
lagunak batu,  
t'oa Arizpera  
kanta an kantatxo  
zolia.

## IRAUTSIJA

**ALKATIA:** ¿Qué tal, señor Vives, qué tal le ha parecido la música?

**MAIXUA:** (*Txarra eritxi dautsala iragarri bei pariztaka*).

**ALKATIA:** Ya.

**DURANGARRA:** Alkatia, onek zer diñue? Irabazterik uste dabe edo...?

**ALKATIA:** Irakasle onen esanai...

**MAIXUA:** Mire V. que sé lo que es *irakasle* que lo aprendí hace días.

**ALKATIA:** Para que me lo entienda mejor diré *maisú*. Por cierto que mejor merece ser llamado así que no con nuestro genuino nombre de *irakasle*. Donato: maixu onen esanai iaramonik ezin egin lekioe. Onetarikoak eztana badantzat, arpegian inok igarri barik esaten daude. (*Maixuak eta Alkatiak autuan diardenartian, Durangarra eskolako zerak ikusten ibilli bei*). Digo, señor maestro, y puedo citar pruebas, que tiene V. la habilidad de decir una cosa por otra sin que se le altere el color de la cara. Y á este mi amigo le decia que es en balde preguntar á V. que tal va su negocio de elecciones.

**MAIXUA:** ¡Pues me gusta la frescura! Hoy esta V. provocativo é insultante.

**ALKATIA:** No hago más que cantar las glorias de su tierra ¿no? A mí me gusta hablar clarito ¿sabe?

**MAIXUA:** Es que...

**ALKATIA:** Mire: á V. se le dá demasiada importancia, más de la que merece. Así que puede continuar en lo suyo. (*Durangarrari*). Donato.

**DURANGARRA:** Ezer nai?

**ALKATIA:** Non dabill Txanterrika?

**DURANGARRA:** Ointxe eldu da. Antonegaz gelditu da autuan. Zer diño onek?

**ALKATIA:** Onek edozer. Onen kontuok ooo.

**DURANGARRA:** Borregok diru asko eidakar.

**ALKATIA:** Nok diño?

**DURANGARRA:** Or diñue.

**ALKATIA:** Bera aldator?

**DURANGARRA:** Ez bera?

**ALKATIA:** Bai ta banengoan neu ta!

(*Agerlu beiz Txanterrika Anton Teles da gerotxuago señor Beato*).



## 6. AGERRALDIJA

TXANTERRIKA, ANTON, ALKATIA, MAIXUA, TELES,  
TXOMIÑ DA LASTERTXURA SEÑOR BEATO

**TXANTERRIKA:** (Agirijan). Kaixio gixonak.

**ALKATIA:** Aspaldikua. Noiz edo noiz!

**TXANTERRIKA:** (*Maixuari*). Buenas tardes.

**MAISUA:** Muy buenas tentga V.

*(Sokondo baten ixillian itundu beitez Txanterrika Alkatia ta  
Anton, beste aldia beste onenbezte egün beje señor Beatok,  
Maixuak eta Teles kintuak).*

**MAISUA:** (Señor Beator, bestiak ez entzuteko moduan). ¿Ese es el señor Chanterrica?

**SR. BEATO:** Sí.

*(Txomiñek iñori begiratu barik eta bakarrik bailleguan, guztijak  
entzuteko moduan diño):*

**TXOMIÑ:** Una plasa de carro ferril.

**MAISUA:** Tú si que eres cerril.

*(Txanterrikak eskuaz iragarri dajjala Txomiñ, Alkatiak buruaz  
baietz erantzun dajjola).*

**ANTON:** Txomiñ: ondiño ordua dala.

**MAISUA:** (*Antoni irrika*). Bala bala bala bala. (*Señor Beator*). Me temo, amigo, que tengas necesidad de traer á un escribano.

**ALKATIA:** Señor mío ¿Va á legar al señor Beato las grandes fincas, que, según dice V., tiene en tierra de Toro?

**MAISUA:** Es para levantar, señor Alcalde, acta de las coacciones que empiezan ustedes á ejercer.

**ALKATIA:** No cré, señor maestro, que tan pronto habrían de llegar las bascas de la agonía.

**SR. BEATO:** Quien parece estar en agonía, y permítame que le interrumpa, es el negocio de ustedes, á juzgar por la consulta de doctores que celebran ustedes á la cabecera misma del enfermo. (*Antoni*). Y á todo esto, señor Antonio, permítame que estreche su mano. (*Antonegana bejua*).

**ANTON:** Beato: ya conosemos juntos en Bilbao por quiñtas. Yo mano dar, V. si nesesa pa levantar; lo demás...

**SR. BEATO:** ¿Quiere V. decir, según colijo de sus ademanes, que no me dará la mano? Con que me dé su voto...

**ANTON:** ¿Voto yo? cincuenta si tendria también pa este *morrasco* de Txanterrika y Gurbiztegi. Mira qué hermoso y... ¡ah! no está en toda la Samora.

**SR. BEATO:** Los hombres, señor Antonio, se miden de aquí acá. (*Bekokijari goi-beietan atzaz ikutuko dautsa*).

**ALKATIA:** Y los Borregos, señor Beato, de la cabeza á la cola.

**SR. BEATO:** (*Asarrez*). Señor Rica ó Terrica.

**TXANTERRIKA:** Txanterrika para servir á V.

**SR. BEATO:** Muy señor mío: Quería decirle que no creía que habría de consentir V. que á sus barbas se insultase en formas tan groseras á un ausente; siendo V., como dicen, tan immaculado, tan prudente, tan exageradamente devoto, tan cumplido y cacareado caballero.

**TXANTERRIKA:** (*Sumindu barik*). Lo que yo he consentido, señor mío, aunque parece haberlo V. olvidado, es que á mis barbas y refiriéndose á mi dijese V. que los hombres se miden de aquí acá: (*Bekokijan ikutuaz*).

**ALKATIA:** Adiskidea, arlote onei orrenbezte biguntasun da politkeri?

**SR. BEATO:** (*Suminduta*). Señor de monterilla: el *arlot*, será usted.

**ALKATIA:** *Andáte* á un diablo.

*(Erremuska abija beitez bijok, geruago ta zarata andijagua egün beje).*

**TXANTERRIKA:** (*Euren artian sartuta*). Paz, señores, paz.

**SR. BEATO:** Pues dejenme hablar que se me han quedado unas cuantas palabras en la boca. (*Biguntasunaz*). Con V. hablaba, señor Antonio.

**ANTON:** Yo no ser señor.

**SR. BEATO:** ¿Que es V.?



ANTON: Anton.

SR. BEATO: Pues bien. Anton.

ANTON: ¿Qué?

SR. BEATO: ¿Conque no me dará V. su voto?

ANTON: (*Asarrez*). Txakill epel orrek, eztok entzun ba len be ba?

SR. BEATO: No se incomode. Para contener esos bríos y aplacar berrinches el mejor calmante es esencia de... (*atzakaz dirua iragarri bei*).  
Con un billetito de cinco duros en mano ya se calmaría V.

ANTON: ¿Sinco duros por voto?

SR. BEATO: Ni uno menos. ¿Los quiere V.? (*Antonek zer egñi eztakijala legez beera begiratu bei*).

ANTON: Sí: dame usté pues. (*Guztijak arrituta*).

SR. BEATO: Tome. (*Diru-papera edo antzekua emon beijo*).

(*Antonek eskuetaratuaz batera zati zati egingo dau señor Beaton papera*).

ANTON: Probe soy, pero honrado. Aquí no tengo, luego trairé sinco duros.

(*Alkatiak txaloka erakutsi bei beren poza. Agertu beitez, eskue-tan mai-estalkija olezko ontzi bat eta eleziñorako tresna biarrak dabezala, mutill batzuk*).

SR. BEATO: Con bárbaros de este jaez no se puede tratar. ¡Eh! cerril (*Txomiñi*), vente con nosotros.

ALKATIA: Señor tirilla: hace bien en huir, porque un soplo de este héroe, á quien llama bárbaro, sería bastante á derribarle.

TXANTERRIKA: (*Antoni*). Anton: *Diputau* ixatia baiño naijago dot eu lakoxe adiskide zintzuak euki. Neure kontura paper ori orrei emotia, geijago balitz be. Gixonak: kanta daigun Antonen ixenian euskaldunen kantia.

### EREZIIA

Euskaldunak, euskaldunak gara  
bixi beite betiko gure euskera.

Erdal-erritik datoz  
maixuak eunka  
jaurti ta amildu nairik  
or bilin-balaunka  
geure erritartasuna  
ta euskera gozua  
lege ta ekanduen giltz  
urre gorrizkua.

Euskaldunak, euskaldunak gara  
bixi beite betiko gure euskera.

Ez zeren ez gorriña  
ez zitz ez gardamu  
erdal-maixuterija  
baixen doguz damu;  
eztira patarijak  
ez txingor ez arri  
euskaldun lurrerako  
orren galtzaigarri.

Euskaldunak, euskaldunak gara  
bixi beite betiko gure euskera.

(*Eratzi bei Estalkija*).





## IRUGARREN ATALA

### ANTONEN ETXIAN

*Gela bi agirijan. Gela andijenian jan-edanerako gertu ta ernai gizon asko: Txanterrika, Alkatia, Anton, Teles, Anbrus (Erabigillia), Manu (baserritar bat), Durangarra ta beste ereze batzuk. Iru mai biar ixango dira, ondo arkolauak irurak. Agerliak maijen utsunian zutunik ereziko dabe, ta zutunik irautsi, urrengo oarrak noiz-jezarri esanarte. Gela txikijenian maitxu bat oetzar bat eta aulki bi. Edozeinbat santu edo donelaurka gela bijetako ormetan dingilizka. Estalkija jaso edo goratu orduko, orkestiak erezi-aurria joko dau. Erezliak euren arlua amaitu orduko, Txomiñ gela tsikijan agertuko da, kintu-jantzijaz, tutulua ta zapija samatik beera barik sakelian erdi-agirijan eukiko dauz. Eskuman eskutitz edo karta bat. Ardura ta gutar andijaz irakurriko dau.*

### 1. AGERRALDIJA

(Len aitaturiko agerliak)

#### EREZUA

##### EREZLE GUZTIJAK:

Beñ asi ta bertan goitu  
doguz guk erdaldunak  
Borrego Vives da Beato  
ta iruron lagunak.  
Inoiz baiño poztxuago  
eguzkijak igan dau  
ikustera Naparmendiñ  
sorbaldan garaitza au.  
Amaika argizai erre dabe  
gure atsuk gaur Elixan  
barri onekaz amaika bagoz

kikill kikill illen gizan.

##### ALKATIA:

Bixi beite Txanterrika

##### GUZTIJAK:

Bixi beite.

##### TXANTERRIKA:

Guztijok bixi gaixala.

##### ALKATIA:

Erdaldunakaz zirika.

##### GUZTIJAK:

Bixi beite.

##### TXANTERRIKA:

Tira ixillik.

##### BATZUK:

Zorijonian agertu intzan,

Gurbiztegiko zalduna,

Arrotzen ordez erri-guraso

euki daigun euskalduna.

##### TXANTERRIKA:

Nun gorde da lege zaarra?

Nok gura dau gaztelarra?

##### GUZTIJAK:

Erdal-odola beren sanetan

dauka gure amak urte onetan.

##### TXANTERRIKA:

Buru beso sotiñ barik

bijotz utsaz bixi da illik,

##### GUZTIJAK:

iñon burua iñon besuak

iñonak dira beren basuak.

Euskalduna gorputza

burua erdalduna

auxe da gaur, anaijak,

gure ama kutuna.

Beñ asi ta bertan goitu

doguz guk erdaldunak

Borrego Vives da Beato

ta iruron lagunak,

Inoiz baiño poztxuago

eguzkijak igan dau

ikustera Naparmendiñ





sorbaldan garaitza au.  
 Amaika argizai erre dabe  
 gure atsuak gaur Elixan  
 barri onekaz amaika bagoz  
 kikill kikill illen gixan.  
 Bixi beite Bizkaija  
 Bixi beite Bizkaija.

**IRAUTSIA**  
*Gela andijan*

**ANTON:** Gixonak: *Diputautzakua* neu banintz be enintzake pozago ixango. Garaitu doguz.

**TXANTERRIKA:** Bai, Anton; euri eskerrak.

**ANTON:** Niri ostera? Beti zagoz orixe esaten. Nik egiñ nebana, beste edo-nok egingo eban, bat edo batek lenengo egin biar dau ta. Manu: estu ibilli gara, ori bai.

**MANU:** Estu? bai estuago ere. Ala Jainkoa! Nire ardurapeko baserri txoan mesa nagosi aurretxorarte, Borregon aldekoak amar bat boto geiago zituen.

*(Gela txikijan Txomii-ek asarrez jagi ta papera ta txapela batian esku-artian lauskitu ta tximurtu, bestian beera botako dauz. Noizik noizera irakurri ta gero asarrezko parizta orretzek egiñ beiz).*

Gero kia bezelaxe aurretikan eraman ditugu.

**TXANTERRIKA:** (*Albokuari*). Zelan dau kiputz onek ixena?

**MANU:** Nik, Jauna, Manu serbitzeko.

**TXANTERRIKA:** Ixen ederra. Zematen aldia euki dogu, Manu?

**MANU:** Baaa, Jauna, adi beza: eun ta ogei *boto* dira guziz edo guztitara, bizkaitarren izketan; irurogei ta amalau iduki ditugu berorren aldekoak, beste guziak muster-beltzak.

**TXANTERRIKA:** Nor da ori?

**MANU:** Nork ixan bear du? Erdaldun orrek, Borregok.

**ANTON:** Orduan aaa (*atz amarrakaz kontuak atara beiz*), sei... larogei... ta ogei eun... berrogeta sei bestiak... Ba bai: ogeta zortzin aldia.

**TXANTERRIKA:** Buru ona daukak Anton. Manu: neuk uste neban baiño *boto* gitxiago euki doguz. Ango abade zaarrak, Borregok bat edo bestetxu baiño eztabezala eukiko, aspaldijon iardu dau esaten.

**MANU:** Baiño diruak, ezaldaki berorrek? sapokeria *franko* egin dizkigu, ezkeraz ez lo egon. Arraiuak ezpaditu, dirurik ixan ezpalitz, gu ere beste bat baiño gutxiago ezkinan izango.

**ALKATIA:** Emen be, e, Anton? baina emen eee eztaude diru-paper orrekaz boto asko batu al izan. Zortzi berreunetatik. Au zer da bada? Au ezer bere ez. Zeinen *botoak*, uste dozue gizonak, geien balio izan dauela?

**TXANTERRIKA:** Orixe dok itaunia! Guk jakijagu ba?

**ANTON:** Alkatia: iñora alde egin barik ementxe egon nok neu be, baiña... Orregaitino be, *denganiñaua*, askanengo *botua* ixan ixango da karuena.

*(Guztjak barrezka. Txomii-ek barriri ostikopetu beiz bai txapela ta bai papera).*

**ALKATIA:** Eztago txarto esanda; ezta baia ori kontua. Badakizue zein botok geien balio izan dauen nire ustez? Maisuan *botoak*.

**TXANTERRIKA:** I beti maixu koitadua azpiratu eziñik.

**ALKATIA:** Koitadua? Bai neu bere; ezta ori, morroi ori, koitadu txarra. *Botoak* erostekotan diru asko artu dau gaur maisuak Beatotxon eskutik. Au guztiok dakigu. Zortzik bakar bakarrik diru ori artu dautse. Eta berentzat ixillian eztauela ezer gorde izango uste dozue?

**ANTON:** Alkatia: munduan arerijorik edo eskerreko begikorik badaukat, orixe dot bat, zeri be baukat-eta; baiño...

**ALKATIA:** Ta ta ta ta ta. Ak nire ustez modu onetantxe esango dautsa Borregori: «Señor Borrego: no hay gente más fementida en ninguna otra provincia de España. He comprado 30 votos á buen precio y solo ocho aparecen en la urna. Los demás me han hecho traición».

**GUZTJAK:** Ori ez — Ezin leike — ka — Hum...

*(Alkatiak maixuen ganerako berba eritxizko orrek diñozanartian, gela txikijan maixua bera agertuko da. Ixill ixillik sartuta gero, Txomii aiñ armii da larri ikusirik errukizko irri-pariztaak egingo dauz).*



**ALKATIA:** Ez e? Tira ba. Atsoak esaten daude:

Aurki agiriko

Maria Mainariko.

**TXANTERRIKA:** Jan daigun orain, ordua da-ta. Goiazan jazartera.  
(*Jazartera bejuaz*). Anton: bedeinkatu maija.

**ANTON:** Ez nik.

**TXANTERRIKA:** Bai, gixona, etxeko Buru nor da?

**ANTON:** Orduan bakoitzak berentzat.

(*Guztjak buru-utsik arren egñ beje. Gero euren artian pozezko berba ixill asko esan bejiz, gela txikiko agerliak berbetan diarduenartian*).

## 2. AGERRALDIJA

### LENGUAK ETA MAIXUA TA TXOMIÑ

#### *Gela txikijan*

**MAIXUA:** Chico, chico: no parece sino que tú eres el candidato derrotado. ¡Qué pena, qué aflicción! (*Txapela erantzita*). Acompaño á V. S. en el sentimiento. Por cierto que harías tú la gran figura en el Congreso, tú serías sucesor de Cassola, reformista del ejército. No te apures, hombre; otro día triunfaremos. Que estos memos, neos, babcas hayan vencido es muy de sentir, sobre todo para, los que odiamos con toda el alma, aunque otra cosa tengamos que decir, la monserga de vuestro dialecto y los malditos privilegios que todavía os diferencian de nosotros.

**TXOMIÑ:** Coplas.

**MAIXUA:** Decía un inspector de esta provincia. Señores: «la civilización y los que tenemos el sagrado encargo de difundirla por incultos países buscamos ante todo y sobre todo la unidad: la unidad en las leyes, la unidad en las costumbres, la unidad en el idioma, la unidad en el traje, la unidad en todo». Esto lo dijo en unos exámenes que celebré yo en esta mi escuela. Yo creo que con este discurso recorría él todas las escuelas de la provincia, como

recorren los sacamuelas con un mismo palique las plazas de los villorrios. El alcalde que había entonces no le entendió. Si es este, le echa al demonio. Mira, amigo: ya llegará la nuestra. Al cabo no se pasa mala vida estos días. Nunca ha almorzado don José Vives tan opiparamente como hoy. ¡Uf! Qué solomillo, qué tajaditas de merluza...

**TXOMIÑ:** Coplas.

**MAIXUA:** ¡Y qué cara ha puesto la tabernera al billetito que he sacado para pagar la cuenta! Nunca me ha puesto...

**TXOMIÑ:** (*Asarrez*). Coplas nada más no son esas, Vives. Ahora sin diñero errebentaos quedamos los dos.

**MAIXUA:** ¿Pues qué pasa?

**TXOMIÑ:** Lea usté y ya verá usté. (*Borregon erantzuna emon bejo*).

**MAIXUA:** ¿Qué es ello?

**TXOMIÑ:** Carta del Diputao.

**MAIXUA:** ¡Chacho! Si ya no me acordaba. ¿Qué dice? ¿Dice que no? San Antonio nos asista. Pues mira: á mi me importa un comino que sea así o asá. Ya ta lo he dicho anteayer: por *fas* ó *nefas*, por activa ó pasiva, por régimen directo ó indirecto (*eskuaz lapurretia iragarri bei*), es preciso que traigas dinero. Si Borrego dice que nones, ahí está el cura con buenas talegas, amigo mío. Ahora leamos y luego hablaremos, (*Irakurten*) «Besa las manos al señor don Domingo Echano el Diputado á Cortes por el distrito de...» —has hecho bien en dejar en blanco, paisano; ahora quiere decir que eres Diputado *in partibus*—. «Julián de Borrego y Encino». Fuera de broma á mí me revienta la costumbre que teneis de poner una *de* delante de vuestros apellidos; pero me revienta más que gentes de mi tierra, que sienten esta misma repugnancia, se llamen de Borrego y de Gómez y de Avellano y del Rey, solo porque han hecho cuatro cuartos ¡sabe Dios cómo! Prosigamos y para no aumentar la jaqueca la leeré para mí solo.

(*Gela andijan bestiak barrezka diarduenartian, Alkaliak*):

**ALKATIA:** Neuk itxi baneutsa galduko genduzan sakristauak. Esan da esanda bere barregarria da gero! Bazkal-aurretxoan agertu iakun, da orduantse *botoa* emoteko egoala «Maestro» esan eutsan mai-xuari «este caja no se llama urna, se llama *guzur-ontzi*». Mutillak:



«txarto bazabilz neuri deitu gero; bear bada, neuk ostuko dot guzur-ontzi ori».

*(Bigarrenez barre egin beje entzuliak. Beste aldian maixuak):*

**MAIXUA:** ¡Cuerno! y será capaz de exponerme una lista de los servicios que me ha prestado. ¿Has visto lo que dice? (*Irakurten*) «Como Beato estará de prisa bueno será que el maestro» — así á secas, como si todos fuéramos borregos— «que el maestro esté preparado para que se sirva devolver á mi citado dependiente las cantidades que le habrán sobrado». Así me arranquen la nariz. ¿Qué te parece de esto, hijo?

*(Txomiñek ezer ezta jela iragarteko soñak gora egiñ beiz.—  
Maixuak irakurri bei berentzat bakarrik):*

**TXANTERRIKA:** (*Alkatari*). Da zeuek, zer erantzun?

**ALKATIA:** Guk barre.

**TXANTERRIKA:** Nun dago bera? Datorrela zerbait artzera.

*(Gizeozko otsein batek isilleko mandatu bat artu bei  
Txanterrikan autik. Maixuak papera begi-aurrian daukala):*

**MAIXUA:** Con 50 pesetas que ta ofrece no hay ni... ¿Qué es esto? Mameluco, ¿qué le escribiste? (*Irakurten*). «Por ultimo, en cuanto á la plaza que V. me pide». ¿Qué plaza o empleo le pediste, si yo no escribí tal cosa?

**TXOMIÑ:** Para haser aujeros con aquello: *krak krak*. (*Eskuaz iragarri bei burdiñ-bidietako txartel-zulatzailien egikizuna*).

**MAIXUA:** ¡Ya caigo! Tú no le has debido mandar mi carta, gaznápiro.

**TXOMIÑ:** Larga larga era y.

**MAIXUA:** ¿Más largo eres tú, sopillo, sotunante? ¿Conque para esto sudé yo tinta, para que tú en vez de mandar la carta al Diputado la echases por ahí? Animal ¿qué hiciste de ella?

**TXOMIÑ:** La lista le mandé.

**MAIXUA:** Ya.

**TXOMIÑ:** Y un papel chiquito chiquito adrento, y pedir le hisé pueees una cosa.

**MAIXUA:** ¿Cuál? Revienta, hijo.

**TXOMIÑ:** Una plasa de carro-ferril.

**MAIXUA:** ¡Angela María! Por eso dijiste tú... ya ya. Pues bien merecido. Tú pierdes más por estúpido. Ya ta decía yo ¿haber recibido la carta y no mandar cuartos? no podía ser. Si hubieras hecho lo que te dije, ahora estábamos como unas castañuelas.

**TXOMIÑ:** Y yo al padre de Teles también sinco duros le quité, con el diñero de Borrego que le pagaría y. A la trabenera tamien...

**MAIXUA:** Pues fastidiate. No haber sido zorro y haragán.

**TXOMIÑ:** ¿Y cómo paaré yo?

**MAIXUA:** De eso hablaremos luego. Ahora tú vete á la cocina y trae una botella de Jerez, que bien de ellas tendrán estos tíos. Canas al aire.

**TXOMIÑ:** Ver me harán y...

**MAIXUA:** Anda, hombre; beberemos á cuenta de Txanterrika y á la salud de Borrego.

*(Kanpoan Txomiñ. Beste aldian mandatari bat urreratuko jako  
Txanterrikari, ta onek ondoren Antoni).*

**TXANTERRIKA:** Anton, badakik zer diñuen? Teles deritxon mutill bat dagola or neuri parka eskatu nairik. Nor da?

**ANTON:** Gixagaixo bat, geure Txomiñen laguna: bixkorra ta eragiña, baiña esangiña ta bijotz-biguna. Igarri neutsan nik orri araiñegun. Beste aste bete atzeratu balitxakiguz autaldi edo *eleziñoioik*, geure alde desak egingo ebazan orrek.

**TXANTERRIKA:** Datorrela orduan aurrera.

*(Agertu bei Teles jan-edaneko gelan, txapela burutik osta osta  
kenduta daukala, lotsarren).*

### 3. AGERRALDIJA

*(Maixua oiñen ganian atzera ta aurrera Txomiñen gelan bebill).*

#### LENGUAK ETA TELES

**TELES:** Buenas tardes tengan ustedes.

**GUZTUJAK:** Hola. — Buenas. — Kaisio — Arratsalde on.



**MANU:** Aizak, gazte; arzak mutill, nire eskutik ardo txurrutada bat. (*Telesek ardao eskinijari ikutu bejo ezpanakaz*). Edan edan lotsarik gabe. (*Edan bei gejuago*).

**TELES:** (*Txanterrakari*). Pues yo contra usted he andao, pero...

**TXANTERRIKA:** Mutill, eik euskeraz, emen guztijok gozak euskaldun garbijak-eta.

**TELES:** Berorren kontra biar egin dodala esatera nator.

**TXANTERRIKA:** Beste beñ egingo dok alde. Etsagok ardurarik.

**TELES:** Da ni enator ezereen billa, eztot ezer biar da.

**TXANTERRIKA:** Tira ba.

**TELES:** Nik eztot jakin ezereen barri: ez Borrego nor dan, ez nor dan berori. Maixuak ipiñi genduzan onetan Txomiñ da bijok.

**ALKATIA:** Eztot nik esaten?

**TELES:** Da parkatu.

**TXANTERRIKA:** Eutsi, mutill, ardaua. (*Edan bei Telesek*). Txomiñ da i baiño arerijo andijagorik ezpageuka, gure errija ondo legoke.

**ANTON:** Txomiñ ezta onakua, urretan be. Ator ona, Teles. (Uireratu bei au). Txomiñ eztok etorriko ba. Berari emongo neuskijon legetxez euri emon gura dauat apa laztan bat. (*Antonek Telesi masu egñ bejo bekokijan*). Lagun eijuek maiko otseñai.

**TELES:** Pozarren. (*Otseñakana bejua*).

#### 4. AGERRALDIJA

MAIXUA TA TXOMIÑ GELA TXIKIJAN,  
BESTE GUZTIJAK JAN-EDANIAN

(*Teles Txanterrak eskiniiriko ardaua edaten dagola, agertuko da Txomiñ beste gelan ixill ixillik, eskuetan Jerez-ardaua dabela. Aiztu edo gaiñibeta txiki batez Jerez-ontzija edo botellia edegñ nairik jesarriko da*).

**MAIXUA:** Parece que estás más animado.

**TXOMIÑ:** (*Bej bizkorraz*). Lo que usted me ha dicho tengo en la cabeza.

**MAIXUA:** Mira, amino: yo no te dije nada. Tú haz lo que quieras. Ya sabes que los lunes la sobrina del cura suele ir a la villa a hacer compras; él a estas horas, como de costumbre, estará en la huerta.

En su casa se puede entrar sin que nadie le vea ni le sienta a uno. Si tú que has sido monaguillo suyo, sabes dónde guarda el cura... en fin ya tú me entiendes.

**TXOMIÑ:** Yo ya me iría, pero... una cosa siento aquí (*eskua paparrera eruan bei*).

**MAIXUA:** Mira, hijo: haz lo que ta parezca; yo no me meto en nada. Si tienes tantas deudas... en fin allá nadie ta verá, ninguno lo sabrá.

**TXOMIÑ:** Dan dan me hase el corasón. ¿Ya me iré?

**MAIXUA:** Tú te las arregles. Ya ta digo: yo no quiero decirte nada, ni que sí, ni que no; porque no me gustaría que el día de mañana viéndote lleno de deudas me dijese: «si no por V. yo hubiera pagado ya todo».

**TXOMIÑ:** ¿Ya me iré pues eh?

**MAIXUA:** Haz lo que quieras. Si vas, yo estaré en el pórtico por si viene alguien. Ya ves que te quiero, amigo. (*Txomiñek itxi bei botellia*). ¡Ah! efectivamente, se conoce que no has manejado muchas botellas. (*Txomiñ kanpora*). Si sale bien, viva la patria; si sale mal, todo lo más que puede suceder será que te lleven a la cárcel. ¡Por la falta que hace!

#### 5. AGERRALDIJA

MAIXUA BAKARRIK ALDE BATEN, BESTIAN LENGUAK

(*Maixuak Txomiñen oeko burruko bat orma-kontran eskerraz ipiñi ta eskuman botellia dabela, onen onduaz ots batzuk emongo dautsaz burrukuari, botellia edegñteko ustiaz*).

**MANU:** (*Durangarrari*). Durango. Kantazazu, gixona, kantazazu zerbait, orren guperia izan gabetanik.

**DURANGARRA:** Baiña zer da kanta biar dana?

(*Gela bijen arteko orman ots batzuk entzungo dira, Maixuen botella-otsak. Antonek Telesi belarrirako mandatutsu bat emongo dautsa. Telesek gela txikijan burua osta osta agertuko dau, maixuak bera ikusi barik, eta beriala Antoni zerbait ixillian esangõ dautsa. Antonek agñdu barri bat emon bejo. Telesek mai-*



*xuari berba egiten lotsa dalako, beste otseñ bati —Erropailli—  
leporatuko dautsa arazo au. Erropaill maixua dagon gelarantz  
doia).*

**MANU:** Arrantzalien kanta kantazazu poliki poliki.

**DURANGARRA:** Luzetxua ezta?

**ALKATIA:** (*Durangarrari*). Donato: orrenbezte orrenbezte... Eztirudik aitan semea.

**DURANGARRA:** Al dodana egiteko emen nago ni.

**MANU:** Gizona: asi asi *Ume eder bat*.

**DURANGARRA:** Ori entzunegija da.

**MANU:** Kantatu orduan *Txarmangarria zera*.

**DURANGARRA:** Ori eztakit ondo.

**MANU:** *Agur nere biotzeko, ezaldakizu?*

**DURANGARRA:** Ori bai, baiña arrijak be buruz dakije.

**MANU:** Luzetxoa izanagatik *Arrantzali* kantatu lezake.

**ALKATIA:** Ori ori. Geuk bere zetan edo atan lagun egingo dogu.

*(Gela txikijan agertu bei Erropaill, da maixuari esan beijo).*

**ERROPAILL:** Afuera pa salir dise Anton.

**MAIXUA:** (Botellia *besapian eskutata*). Saldremos. (*Bijok kanpora*).

## 6. AGERRALDIJA

*(Gela txikijan iñor be ez, andijan languak)*

### ARRANTZALIAN EREZIJA

**GUZTIJAK:**

Betorkigu kantatxu bat  
bijotz pozgarrija.

**DURANGARRA:**

Arrantzalia gora  
Jaunan ixenian,

**GUZTIJAK:**

guztijok ariñ ariñ  
batu kai-ganian.

**DURANGARRA:**

Eguraldi latz ederra  
arrañetako dago  
ixarrez jantzi zerua  
ta iñoiz baiño urdiñago,  
urak geldi ta bare,  
kanpaitez puztu bage  
itxasua.

**GUZTIJAK:**

Gora! Gora!  
Betor lebatza kaipera,  
beuke umiak zer jan,  
betor poza sukaldera,  
miñak aaztu daiguzan.

Potxera ta kurrikan  
txikot eta amu  
traol da guzti sartu  
panel da erramu.  
Tira mutillak tira  
kontu Kose Mari,  
bultz bultz nasa orretan  
dagon potiñari  
Andra Marijak gorde  
ta berendu gaixan  
*salve* bana guztijok  
geure asaben gixan.  
Geure begira dagoz  
gaur lebatzak kalan  
aurrera adiskidiak  
egin daigun abant.

## 7. AGERRALDIJA

### IRAUTSIJA

### LENGUAK ETA MUITIZ ZAARRA

*(Muitiz jai-eguneko jantzita begjak zapi gorritzka batez estalduta  
daukazala agertu bei, Teles itsu-aurreko dabela).*



**MUITIZ:** Gixonak. (*Jagí beiz guztijak bera ikusita*). Jaungoikoak urte on askotan gaur lakoxe eguarte on bat emon daixuela. (*Txanterrika beragana jua da kapelia jantzi eragiñaz esan beijo*):

**TXANTERRIKA:** Muitiz, neure adiskide ona: Antoni sarri esan dausat ba non etezagozan. Zegaitik etzara bazkaldutera etorri?

**MUITIZ:** Gillermo: itsu errukarri batek lagunak azpertureko baiño eztau balijo. Kantaak entzutera nator, neure loba Donato be emen dagona bakit eta.

**TXANTERRIKA:** Kafetsua geugaz artuko dozu. Tira, Muitiz, geure ondora. (*Besotik oratu ta beroia maipurura*). Jesarri aurtxe maipuruan.

**MUITIZ:** Maipuruan ni ez, zeu Gillermo.

**TXANTERRIKA:** Ez, Muitiz; tira mesedez. (*Bertan jazarri eragiñ beijo*). Aspaldijon zagoz itsurik?

**MUITIZ:** Iru illebeta laster itsutu nintzala.

**ALKATIA:** Baiña umore ona beti, e, Muitiz?

**MUITIZ:** Semiak eta erranak ondo artzen nabe ta.

**ALKATIA:** Gaur ardau-zurrutadatxo bat geiago bai, e?

**MUITIZ:** Edo gaur edo iñoiz ez. Arrati —urten egin daust eta parkatu—, Alkatia: egija esan biar da ta nire ustia egingo balitz, eu ixango intzake beti erri onetako Buru. Erdaldunak lege barri-lotsagarrija ezarri dauskuenetik etxuagu, gaurrarte Diputau euskaldunik euki. Euri eskerrak.

**ALKATIA:** Antoni eskerrak, ez niri.

**MUITIZ:** Antonek be, gixagaiso onek, alegintxua egiñ eidau. Goixion esan daustena egija bada Arranua!! Anton: arruarren esan daiket semia autana.

**TXANTERRIKA:** Muitiz: *Jerez*-tindi bat lenengo.

**ALKATIA:** *Brindoa* edo orretarikoa bere egin gero. Zelan da arako bertsoa ta esakerea? Osasunerako ala zelan esaten da?

**TXANTERRIKA:** (*Arpegi barretijaz*). Ondo dakik ori ik, baiña neuri eraso-tiarren diarduk. Bota ona ardau-tinditsu bat, Alkatian esana egin daidan.

*(Txanterrikak edontzi edo kopa bat Jerez ez betia eskuetara emon beijo Muitizi. Onek orduan zutundu ta kapelia erantzijaz esan bei zoli zoli):*

Diputau gaztia,  
Txanterrikako loria,  
aguratxuon pozgarrija,  
euskaldun maitagarrija:  
zeure osasunerako  
ta neure onerako.

*(Edan bein kopakadia. Bestiak txaloka. Muitiz jazarrita gero, beren edontzira bota bei Jereza Txanterrikak eta burutsik eta zutunik esan bei, ardaa eskuan daukala):*

**TXANTERRIKA:** Muitiz zaarra, neure adiskide Anton zintzuan Aita, neure Aita zanan gaztetako laguna, euskaldun mena, benetako bizkaitarra:

Zeure ixenian  
da neure gizenian.

*(Edan bei). (Bestiak txalokada bat).*

**ALKATIA:** (*Zutunik*). Gizonak: guztiok edan daigun guztion izenean. Kanta daigun onelangoetarako dakigun kantea.

## 8. AGERRALDIJA

### GELA TXIKIJAN TXOMIÑ, ANDIJAN LENGUAK

*(Jan-edanekuak erezija asi ta gerotxuago agertuko da Txomin beren gelan. Kolkotik atara bei diru-zorrotsu bat, mai-ganian ipiñiko dau, ta artegaturik eta armii armii batian dirua kontaten asi, bestian gorde; batian jazarrita, bestian batera ta beztera: onetaraxe iragarriko dan Txomiñek beren armii estura ta artegatasuna. Jan-edanekuak zutunik erezi beije).*

#### EREZIIJA

##### GUZTIJAK:

Matzari mintz-artian  
munduak ezarri  
dautsaz beren onurak  
danon osagarri:





Odeijak bizija ta  
aixiak indarra  
lurak gozotasuna  
eguzkijak garra.

**BATEK EDO BIK:**

Ur-zale danen  
bijotz gaixua  
da arima bako  
koipe-trokua.  
Larri ta erdi illik  
arima urtsua  
bijotz-barrutik  
burura dua.

**BESTE BAT EDO BIK:**

Erlien iguiñ  
dirian lora  
gerixetako  
zimel zimelak,  
dira arda bako  
ur-zale oskill  
gixon-antzeko,  
gixon igelak.

**GUZTIJAK:**

Betor barrura  
mundua zutik  
bixkor da sendo  
daukan odola.  
Ardau biurtu  
bekiguz arren  
erreka iturri  
mendiko ujola.

## 9. AGERRALDIJA

LENGUAK ETA GEROTXUAGO GUARDIA SIBILL BI  
TA MAIXUA. GELA TXIKIJAN TXOMIÑ

*(Erezija amaitu baiño lentxuagø Telesek zer edo zer esangø dautsa  
belarrira Antoni. Onek esan bejue lagunai):*

**ANTON:** Maixua ta *guardia sibill* bi eidagoz atetan. Teles: datozala bertora.  
*(Teles kanpora).*

**TXANTERRIKA:** Zer etedarre!

**ALKATIA:** Maixua loturik ausa. Ai orrelango bat egin baleie!! Arazo bat  
gitxiago guk.

**MUITIZ:** Gixonak: eztañit zer esan. Iñoix ez da gaur bai? Txomiñ nun  
dabill? Txomiñen barririk eztañizue?

**MANU:** Muitiz: onera dato an oiek *Diputau* Jaun oni eskupekoxtoren bat  
atera nai izango dioe.

*(Agertu beitez len aitaturiko guardia sibillak eta maixua.  
Maixuak agertuta gero dirautse euren arterako):*

**MAIXUA:** (Guardia sibillai *bakarran*) Ahora no hablen ustedes de eso.  
Saluden ustedes al señor Diputado y nada mas. Al Alcalde se le  
dira á solas. *(Zoli ta guztijai)*. Señores: que les aproveche.

**ANBRUSEK BAKARRIK:** Eskerrik asko.

**ALKATIA:** Vives ¿cómo así?

**MAIXUA:** Venimos á saludar al nuevo señor Diputado.

*(Txanterrikak kopa banatan Jereza irurai eskiñi bejue).*

**ALKATIA:** No había necesidad. Más necesitado de compañía estará el  
señor Borrego ¿no?

**MAIXUA:** *(Jereza edatera doiala)* A su salud, señor Txanterrika. *(Onek buruaz  
zelanbait eskerrak emon bejioz)*. Viva nuestro Diputado.

**ALKATIA:** *(Berari, miñ miñ egñida)*. Señor maestro: esto es ya reventarle á  
uno. ¿No tiene V. vergüenza? ¿Llamarle *nuestro* después de haber  
trabajado en contra de él y haber revuelto el pueblo y soborna-  
do á unos cuantos infelices? Guardias: su presencia me place, no  
les faltará qué hacer.

**MAIXUA:** Señor Alcalde: es verdad que he trabajado en contra, pero  
advierta V. que nadie ha solicitado mi concurso, al contrario se  
me ha despreciado, se me ha alejado. Por lo demás todos saben  
que soy como el que más en regocijarme cuando debo. Yo debo  
amar y amo la patria de mis hijos como mi patria misma.

**ALKATIA:** ¡Mentira! Solo que V. sabe arrimarse al sol que más calienta.



**MAIXUA:** Señor Alcalde: siempre he sido partidario de que cuando en un país hay hijos suyos dignos de representarle, como en este caso, me gusta que cada país esté representado políticamente por sus hijos. ¿Quién conoce mejor las necesidades del pueblo? ¿Quién más lo ama? (*Alkatiak jagi ta Guardijakana doiala, diño*):

**ALKATIA:** (*Maixuari*). Usted tiene a este país el mismo afecto que yo tengo al suyo.

**MAIXUA:** Siento mucho decirle que se equivoca.

**ALKATIA:** ¡Cállese! (*Guardijakaz ixillian berba egin bei*).

**MAIXUA:** En este país todo me encanta. Su lengua es difícil, pero muy linda y dulce; sus leyes son ejemplares y dignas de un pueblo viril como es este; sus cantos son bonitos, tiernos y sobre todo muy expresivos. ¡Cuidado con aquel zorrico (?) de Iparraguirre (??) el *Iru dámacho!* El carácter de sus habitantes es noble, sus costumbres...

**ALKATIA:** (*Zer jazo dan jakiñda gero*). Cállese, embustero. Guardia: explíquese.

**GUARDIA SIBILL BAT:** Pues aquí mi compañero y un servidor que veníamos por ahí en eso, al pasar por el pórtico nos hemos quedado hablando con el señor maestro que estaba fumando, y ha venido Nemesia la sobrina del cura pidiendo socorro, y cuando la he visto la he dicho yo, digo: Nemesia «qué pasa» y me ha dicho, dice: «que han robado mi casa». Entonces lo primero hemos ido a la casa de la Nemesia y hemos encontrado esas dos prendas que tiene el señor Alcalde; y la Netnesia ha dicho que son del chico de aquí, y el señor maestro dice que no.

(*Antonek Alkatian eskuko tululua ta zapija ondo ikusi ta gero uliai tiratu ta gora begiratu, txapela bijortu ta beste golarantz urtengø dau. Muitizek zutundu ta larri larri diño*):

**MUITIZ:** Gixonak, zer dabill emen? zer diñue etorribarrijok?

**ALKATIA:** Ezer bere ez, Muitiz. Donato: eroan mesedez osabea Kosepantonigana, ta Kosepantoniri loak onduko dauela esan eiok, eta eztailla arduratan egon. Laster ioango nakio neu bere.

**MUITIZ:** Alkatia, zetara etorri dira *guardia sibilloc* ona?

**ALKATIA:** *Diputaduari* egun onak emotera. Gizagaisook zer edo zer edan bear daudie, ta onelango egunetan izan ezik iiii. Muitiz: Kosepantoniri buruko arina egin eiiako, ta Donatogaz zoakioz.

(*Donatok beso-ondotik oratu ta beroia Muilliz. Onetan Anton beste gelara eldu izangø da, ta uste uste bako ikustaldi atan Txomiñi kaiza-barrura begira topako dau. Anton zuzen zuzen beragana bejua ta diru-zorrua eskuetan artuaz gela-sabaira begiralu ta arnasaz ondo bete eziñik legez Txomiñi esan bejjo*):

**ANTON:** Tira neugaz. Aur dago maixua.

**TXOMIÑ:** (Oker aditu ta maixuak egi guztija autortu dabelakuan diño): Maixuak salatu nau? Berak daukaz erruak.

**ANTON:** Tira neugaz beste gelara. (*Gelatxutik kanpora bijok*).

**MAIXUA:** Yo he dicho ya a estos señores (*eskuaz Guardia sibillak iragarri beiz*): el hecho de haberse encontrado el canuto y el pañuelo en casa del señor cura no significa lo que se supone. ¿Quién me asegura a mí que el verdadero ladrón por despistar a la Justicia no ha robado primero el canuto y el pañuelo para dejarlos allí, precisamente por conseguir esto que ahora pasa? Y puesto que así no fuera ¿quién dice que ese pañuelo y ese canuto no son los del otro quinto, de Teles?

(*Agertu beitez euron artian Anton da Txomiñi*).

**ANTON:** (*Diru-zorrua begjen aurrian rnaixuari ipiñita*). Vives. (*Jaurti bei gero diru-zorrua ta beera begira naigabe andijaz diño*): Egija da. (*Mai-ganian ukonduak ipiñi ta esku-artian burua dabela begø Anton*).

**TXOMIÑ:** (*Beren Aitak maixuari Vives esanda batera*). Vives ¿yo he sido, eh? Tamien usté, usté me ha dicho pa robar.

**ALKATIA:** Vives, señor funcionario público: por fin ha llegado el día, aunque ha sido necesario sacrificar a un infeliz.

**MAIXUA:** (*Zurtuta*). Señores: déjenme hablar. El hecho aparece evidente. El interesado lo afirma. Yo no sé nada: les aseguro por mi honor.

**ALKATIA:** No le reconocemos honor ni calabazas ¿sabe?

**MAIXUA:** Es verdad que este joven (*Txomiñgailik diño*) indignamente abandonado del señor Borrego y necesitado de dinero me confió su proyecto; traté de disuadirle como era natural, mas no pude conseguir nada. He venido a esta casa a evitar el hecho dando parte al señor padre del delincuente, y él mismo me ha echado de su casa. ¿Qué más pude hacer?





**ANTON:** (*Esku-artetik burua jasota*) Vives: estos no saben, pero yo ya sé usté á qué venido aquí. Usté con mentira matar me hará á mí.

**ALKATIA:** Señores, basta. (*Erabagilliar*). Anbrus, eure ordez berba egin daiket?

**ANBRUS:** Bai orixe.

**ALKATIA:** Guardias: en nombre del señor Juez de este pueblo sírvanse llevar á la prevención á don José Vives Almendralejo y á este infeliz, y déjenlos absolutamente comunicados. (*Guardia sibillak egín beije Alkatian agñdua, Vives da Txomiñ eruanaz*).

**ANTON:** (*Mingosturik*). Au dot eguna! Txanterrika: paparriar bixarrik badaukazue, kenduixuez sustrai sustraitik *kinta* madarikatu onek. (*Beren buruari, baiña guztijak entzuteko moduan*).

Anton... Anton... bat euki ta bera!

(*Kanpora Anton*).

## ATZENENGO AGERRALDIJA

JAN-EDANEKO GUZTIJAK, ANTON DA MUTIZ BARIK

**ALKATIA:** Guillermo ese honrado padre de familia, en quien debemos mirarnos todos ¿no? te encarga que los Diputados trabajéis por arrancar de nuestro suelo las malditas quintas.

**TXANTERRIKA:** Ya sabes, alcalde, que me gusta ser sincero. No pronunciaré grandes discursos en el Congreso, porque no puedo; mas para trabajar, allí me tendréis á vuestra disposición.

**ALKATIA:** Espera, sí, bien; pero te pido algo mas y á este precio te he dado mi voto. Cuando llegues á Madrid d á tus compañeros que el Diputado bizkaino tiene que defender intereses más nobles que lingotes, minerales y ferro-carriles. Creo porque sé que eres noble y sincero ¿no? que cumplirás tu palabra y serás digno de tu nobilísimo padre y digno de Bizkaia. Si así no fuese, sabe que todo mi desprecio caerá sobre tí.

**TXANTERRIKA:** Me gusta que me hables así.

**ALKATIA:** Y aun cuando no te gustara, te hablaría. Recordarás que muchas veces hemos hablado de la escuela bizkaina.

**TXANTERRIKA:** Recuerdo, y efectivamente...

**ALKATIA:** Déjame y perdona. Haz, pues, lo posible porque alguna vez la veamos planteada. Hoy á nuestros hijos ¿no? se les enseña quien fue Wamba y el moro Muza, pero de Jaun Zuria y de la Machinada no se les dice ni el nombre. Nuestros hijos saben que el Ebro nace en las montañas de Reinosa, pero ignoran cuál es la cuna del Ibaizabal y del Lea. Conocen que Dios es Padre nuestro, pero no saben que es *Aita gurea*. Hasta paca poco de Bilbao mismo salian, peores ó mejores, patriotas ó mercenarios, los maestros de nuestros pueblos; ahora nos los mandan desde Valladolid.

Ayuntamientos de Bizkaia y de todo el país euskaldun: dejad las *escolas* y los *maius* para los hijos de los carabineros; y cread *ikastegis* e *irakasles* para vuestros hijos. Y si el Gobierno os manda Vives y Almendralejos, no les neguéis pan, para que sus familias no mueran de hambre; pero en vez de la llave del corazón de vuestros hijos, dadles una guitarra para que canten tangos y malagueñas.

Señores: hoy es día de luto para esta noble casa, porque ve salir por el camino de la deshonra á un infeliz sobornado por un granuja. Pero es día de gozo para Bizkaia porque siquiera unos días estará cerrada esa escuela, patíbulo, como todas, de nuestro hermoso euskera, y, por lo general, sala de vacunación en que nuestros hijos degeneran de euskaldunes en cualquier cosa.

Saludemos á Bizkaia con el himno del pueblo euskaldun.

(*Guztijak zutunik burutsik eta bijotz bijotzetik erezi beije Gernikako arbola*).

Gernikako arbola  
da bedeinkatua  
euskaldunen artian  
guztiz maitatua.  
Eman da zabal zazu  
munduan frutua  
adoratzen zaitugu  
arbola santua.

(*Eratzi bei Estalkija*).